

**Irailaren 5ean
Ordiziako azoka
berezia,
leku
aldaketaren
atarian**

**Arkume
salmenta
Ordiziako
azokan**

**Behi Esnea:
zaporeduna**



25 urte goierritarrei
ingeles hizkuntza eta
kultura zabaltzen

 **ick's**
ENGLISH CENTRE

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 686 32 05 15

Kurtso hasiera

Irailak 17

Izen ematea

Irailaren 3tik aurrera

Arratsaldeko 6etatik 8etara

Behi Esnea



Ohizko sukaldeko benetako
zaporea lortzeko aproposena

Zaporeduna

ESKAINTZA BEREZIA

Esnezaleen helbideak xorrotik
moztearekin bakarrik.


Eskatu oparia zure dendan:

a) Diska egalaria: 10 helbide

b) Kometa: 15 helbide

d) Aterkia: 25 helbide

Promozioa edukiak bukatu arte



Behi Esnea produktoreak




Agerre baserria
Tel. 943-72 40 36
Urretxu, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00005/SS N^o.A



Iztueta Elkarte
943-88 41 36 / 943-88 48 60
Lazkao, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00003/SS N^o.A



Agote Etxeberri baserria
Au/Garin 17, Beasain
Gipuzkoa



Euskal Jaiak

ORDIZIA

Abuztuaren 31tik irailaren 9ra

2001 urtea

Irailak 5 Asteazkena

**Gazta, abere, fruitu, barazki
eta lepagorri oilaskoen
Lehiaketa**

Antolatzailea



Ordiziako Udala

LAGUNTZAILEAK

Goimen Elkartea

Idiazabal Jatorrizko Izendapena

HEBE

Idiazabalgo Gaztaren Kofradia



kutxa
zuri esker



Gipuzkoako Foru Aldundia

Non zer

4-5: BERRIAK LABUR.

6: KOLABORAZIOA:
Ostiela aldizkaria.

8: AHOLKUA:
Mari Jose Alustiza.

9: KATE MOTZEAN:
Alaitz Zubizarreta

10-11: Ordiziako euskal
jaietako egitaraua

12-13: Arkume salmenta
ordiziako azokan

14-15: Behi esnea

16: Ordiziako azokaren leku
aldaketa

17-28: KRONIKAK:
17: Mutiloa
17: Ataun
18: Beasain
19: Gabiria
20: Segura
21: Idiazabal
21: Itsasondo
22: Ordizia
23: Lazkao
24: Zerain
25: Ormaiztegi
26: Zaldibia
27: Zegama
28: Ezkio-Itsaso.

29: KILOMETROAK 2001

**30-31: DEBALDEKO
IRAGARKIAK**

32-33: AGENDA

34: FOTO ZAHARRA: Ordiziako
Santa Ana ikastetxeko
ikasleak.

Aldizkaria **ZOKETA**

Goierritarra

Laguntza:
200 pezeta

SARIA:

300.000

pezetako bidaia
(2002ko irailaren 30erarte egiteko)

Saria derrigorrez bidaia egiten gastatu behar da.



☎ 943 80 53 11

BEASAIN
ZUMAIA
AZPEITIA



Zoketa notario aurrean egingo da, 2001eko abenduaren 11n.
Zenbaki saritua Goierritarra aldizkarian argitaratuko da.
Saria jasotzeko epea: 2002-1-31 arte. ☎ 943 88 96 12

Zk.

Zk.

300.000 pezetako bidaia GOIERRITARRA aldizkariaren aldeko zoketa

Iraila iristearekin batera, azken urteetan bezala, salgai izango dira GOIERRITARRA aldizkariaren aldeko errifak. Dohainik banatzen den aldizkaria izanik, urtea aurrera atera eta etorkizunean ere hamabostero Goierriko berriak euskaraz bilduz jarraitu ahal izateko, guztion laguntza behar-beharrezkoa du GOIERRITARRA aldizkariak. Hori dela eta, zure laguntzatxoa emateko aukera paregabea duzu, 200 pezetaren truke, errifak erosiz GOIERRITARRA aldizkariari arnasa pixka bat emateko.

300.000 pezetako bidaia zozketatu da. Abenduaren 11n, Ordiziako Notarioaren aurrean aterako da zenbaki saritua eta abenduaren 19ko GOIERRITARRA aldizkarian emango da zenbakia-
ren berri.

Nahi duzuen, nahi duzunarekin eta nahi duzun lekura bidaia egiteko aukera ematen dizu GOIERRITARRA aldizkariak. 2002. urteko irailak 30 baino lehenago egin beharko da bidaia. Beasaingo Kale Nagusian dagoen Urolak Bidaiak, bidai agentziaren bidez egingo da bidaia.

Goierriko herri guztietan izango dira salgai errifak. Datorren alean kaleratuko dugu leku zehatzen zerrenda. Iraileko Ordiziako azoka berezian, irailaren 5ean, salgai izango dira. GOIERRITARRA aldizkariaren bulegoan bertan ere bai. Hori bai, errifak saltzeko boluntariorik egonez gero, 943889612 telefonora deitu eta harremanetan jarriko gara. Aldez aurretik, eskerrik asko guztioi!

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Manex Aranburu eta Mari Jose Alustiza.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.300 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**



Atxiloketak Zaldibian

Abuztuaren 22an Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen Zaldibian, ustez ETari laguntzeagatik: Oskarbi Jauregi eta Alaitz Intxausti zaldibitarak eta Xabier Unanue lazkaotarra. Ordu batzuk lehenago, Zizurkilen, Xabier Makazaga segurarra atxilotu zuten, ETako Buruntza taldeko kide zelakoan. Mobilizazio ugari egin ziren Zaldibian, Lazkaon eta Seguran, gazteon askatasuna eskatuz. Argazkian, Zaldibiako mobilizazioa. Informazio gehiago Zaldibiako kronikan duzue.

Idiazabalgo erasoa

Abuztuaren 10ean, Idiazabalen ertzain baten baserria eta Telefonikako kabina bat erasotu zituzten. Ertzaintzako iturrien arabera, guztira hiru hodi aurkitu zituzten, guztiz txikituak, suziri batzuek barruan egin baitzuten eztanda. Baserriko belardira erori omen ziren suziriak. Ertzainaren etxeak ez zuen kalte materialik izan. Handik gutxira, molotov koktela bota zioten telefono kabina bati.

Juan Mari Jauregiri omenaldia

Iazko urteko uztailaren 29an ETak hil zuen Juan Mari Jauregiri omenaldia egin zioten Legorretan, bere jaioterrian, hilketa eguneko urteurrenean.

Lan istripua

Eibar-Gasteiz autobidea eraikitzeko lanetan, Ordiziako Alberto Rodriguez langilea hil zen abuztuaren 20an Bergara inguruan. 40 urte zituen.

Turistak Goierrin

Uda partean turista ugari ibili da Goierrin, azken urteetako jorari jarraiki. Kopuru zehatzik jakiterik ez dago, turismo bulego gehienak itxita egon baitira. Dena den, iaz adina, edo gehixeago, etorri direla aurreratu digute Goiturretik.



Aranburu Azpikoa baserria erre da Beasainen

Abuztuaren 26 goizaldean izandako ekaitzaren ondorioz, sua hartu zuen Beasaingo Aranburu Azpikoa baserriak. Inor ez zen bizi baserrian. Ganadua bizirik ateratzea lortu zuten.

Zuzenketa

Azkeneko alean, Ordiziako apaiz gaztearen abizena gaizki jarri genuen. Xabier Intxausti ez da, Xabier Irastorza baizik.

Olagi Sagardotegia



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

Autowag, s.a.




☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km **BEASAIN**

FAGOR



XENKEGI

ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN





Proiektu berritzaileen sariketa, Goimenen eskutik

Goimen Elkarte (Goierriko Mendi Nekazaritza) Goierriko udalek eta nekazaritzako ordezkariak osatzen duten erakundea da eta bere helburu nagusia landa garapenaren alde lan egitea da. Landa garapenarekin zer ikusia duten ekimenak suspertu eta garatu nahi dituenek, iaz hasita, lehiaketa antolatzen du Goimenek. Bi sari banatuko dira:

100.000 pezeta eta 50.000 pezeta. Proiektuak gauzatzeko inbertsiorako dirulaguntza eskaintzeko aukera ere badu Goimenek, beti ere, proiektua eskualdean garatzekoa bada.

Proiektuak aurkezteko garaian puntu hauek hartu behar dira kontuan: Goierriko eskualdean garatu daitekeena izatea; saria eskualdean gauzatu gabeko proiektuei emango zaie; txosten labor bat aurkeztu beharko da, gaia aukatzearen arrazoia, helburuak, justifikazioa, proiektuaren garapenaren memoria eta ahal dela, aurrekontua zehaztuz.

Gaiak asko izan daitezke. Goimenek hiru arlo aurreratzeko dituzte: ohiko produkzio joeretan oinarrituta, aldaketa eredugarriak edota produktuari balio erantsi handiago bat ematea lortuko luketen ekimenak; Goierriko eskualdean ohikoak diren produktotatik kanpo nekazaritza arloan burutu daitezkeen ekimenak; eta nekazaritza jardueretatik kanpo, beste jarduera osagarriak, ingurugiro mailan, nekazal kultura arloan.. burutu daitezkeen ekintzak.

Urriaren erdian amaituko da proiektuak aurkezteko epea. Txostenak Goimen Elkartera eraman behar dira, partaideen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziz.

Joseba Beloki: 3. Tourrean

Lazkaoko txirrindularia, aurtan ere, hirugarren izan da Frantziako Tourrean. Bere Beasaingo Peñakoek zuzeneko jarraipena egin zioten eta Pirinioetan bi egunetan egoteaz gain, Parisen ere izan ziren, bizkarrean ikurrinak hartuta.

Mikel Lasa Murtziara

Bigarren A mailan jokatzen duen Murtzia futbol taldean ari-tuko da Mikel Lasa legorretarra datozen denboraldietan. Athletic-en jokatzeak aukerarik ez zuenez, Murtziaren eskaintza onartzea erabaki du. Errealean eta Real Madriden jokatutakoa da Lasa.

Errealak Beasainen

Abuztuaren 21ean, Errealak Beasainen jokatu zuten, aurre-denboraldiko partida. Bana berdindu zuten.

Lenin mendiaren gailurrean

Azkeneko alean aurreratu genizuenek, Pedro Garcia, Jokin Aizpurua eta Sarasola anaiak Lenin mendira igotzeko asmotan joan zirela. Helburua beteta itzuli dira. 7.134 metro ditu Leninek.



Julen Mujikarentzat, Burlatako torneo

Beasaingo pilotariak, Burlatako pilota txapelketa irabazi zuen, Iñaki Larralde nafarra bikote zuela, abuztuaren 16an. Murrumendi Pilota Eskolako pilotaria da Mujika.

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Beldurrak
- * Harremanetarako arazoak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

Boni-etxe
igeltseritza orokorra

☎ 616 921 502 Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

LAZKAOKO MAIZPIDE euskaltegia

2001/2002 IKASTURTEA

- IKASTAROAK URTE OSOAN:
 - ✓ BARNETEGIA: Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
 - ✓ BESTE BATZUK: 5 ordu goizean (8 - 13:30) 2 ordu egunean
- MAILA GUZTIAK

Izen ematea irailaren 3tik aurrera DEITU ETA EMAN IZENA!
☎ 943 88 92 31 - 943 88 92 32 LAZKAO

HABEren dirulaguntzaz.

Sei urte betetzen dira orain, outsider batzuk "Ostia!" aldizkaria kaleratu beharrekoa zela pentsatu eta proiektu hori marmitzen hasi ginenetik. Gai honetan aditua den Mielanjel Elkoroberezarrek oraindik asko ez dela esan du "azken hamarkada luze honetan, literatura aldizkariak oihartzunik gabeko garraisia dirudite", sasoi batean ia institutu eta unibertsitate gehienetan euren aldizkaritxoak zituzten bitartean, edota 1980tik 1994ra hogeitabost bat aldizkari pisuzko sortu baziren ere.

95.a zen gure hastapenean, eta herri aldizkari dextente sendotuta zeuden dagoeneko, baina literatur aldizkariak beheraka zihoazten. Hasiera batean, aspertuxeak geunden euskal behi sakratuekin eta desagertu berriak ziren *dinosauroekin*, eta euskaldungoa, masa akritikoa, *guztiz tontotuko ote ziguten* beldur ginen. Literaturatik atera eta zabalago jokatu zuen kultur aldizkari berezi eta heterodoxo baten premia sumatzen genuen: gai serio eta umoretsuak konbinatu beharko zituen, gai interesgarriak eskaini, hizkera eta edukien aldeetik herriarengandik hurbil egon, aide fresko eta berritzaile bat ekarri nahiko zuen... *Izan direlako gara*, horratio!

Segituan ikusi genuen "lizunkeria" ez zela joratu gurean; lizunkeriaren kontra joateko testu zahar batzuk izan ezik, ezer gutxi egin zen horretan gure literaturan. Eta horri buelta ematen hasi ginen. Hasieran harritu egiten zen jendea, *euskaldun normalak* al ginen-edo ere entzun behar izan genuen. Gauzak normaliza zitezen nahi genuen, erakutsi euskaraz ere trata zitezkeela gai horiek. Ordura arte euskal aldizkarietan egin ez zen bezala, era erdi-monografikoan ere bai, landu ziren erotismoa eta pornoa. Zorionez, gero eta gehiago normalizatzen ari da jenero hori euskal literaturan, eta gurea harea-ale bat gehiago baino ez zen izan.

Asuntu horretan hoztuta ere bagaude jada, baina, halere, ez da egia sexuarekin fijasoreen bat genueneko, ez eta "pentsamendu bakar/obsesiboa" genuenik edota "odola leku bakar batean biltzen" zitzaigunik. Sexuaz gain, bestelako gai mordoa kaleratu dugu (eta azkenaldian erdi-monografikoetan: erlijioak, sorginak, presoak, komikiak, drogak, "zibilizazio" kontsumista, indioak, antzerkia eta askotarikoak). Gertatzen dena da ez garela ohitu sexu-kontuak eta euskara erlazionatzen. Oraindik ere arrotzak egiten zaizkigula erderetan ohizkoak diren terminuak. Esparru horretako gauza ez oso ortodoxoak, kontrakultura, azpikultura edo zaborkultura --eta bestelako zenbait joera berri-- gurera ekartzen eta hizkera modernotzen-edo saiatu da "Ostia!"

Geroztik etorria duen jende mordoa bat inplikatu da aldizkarian, kolaboratzaileak eta masa grisa sekula ez da falta izan E.H.-an, *esateko asko daukagu*, hori ez baino beste gauza batzuk dira arazo hemen. Eta, sinadura ezagunen eta ezezagunen artean, ziento luze

Euskal aldizkarietako abenturerismoa edo "Presente Abandonatuaren Museoa"

baten lanak plazaratu dira jada. Horretan jarraitzea espero dugu.

Estilo aldetik, estilo eza eta estilo elegantea ere maite ditugu, pose-eza dugu pose, ez dugu euskara enkortsetatu edo pedante bat gura, euskara ulertaraza, hizkuntza herrikoia eta ondo idatzitako gauzak nahi ditugu, luzitzea ere onartzen dugu (hau ez da herri aldizkari bat). "On den dena", beraz.

Aurrerapausu batzuk eman ditugu, orri kopuruan eta kalitatean gora egin dugu, diseinu eta maketazio berriak, "izen" bat hartu ere bai, baina aldapa gogorra da oraindik. "Ostia!" jada entziklopediatxo kontrakultureta bat da, ia 1.000 orri eskaini ditu. Eta joratu nahi ditugun gai ugari daude, ideiaz gainezka gauden, itzulpen berezi edo aparteko batzuk ongi pentsaturik dauzkagu, diska bat, ipuin liburu bat argitaratzea, web orria berritzea...

Balantze positiboa, beraz, ia 6 urteotakoa, nahiz eta guk nahiko genukeen adina ez saldu. "Zer, edo ezer, irakurtzen ote du gure jendeak euskaraz?" galdetzen diogu geure buruari. 1.000 erosle ez ditugu (300 harpidedun eta 500 erostun eskas). 1. zenbakiaren 2 edizio txoak agortu ziren, Matias Mugicaren libelo famatuaren 1. edizioa ere bai (ez 2.a!), hari emandako erantzunekin osatutako 9. zenbakiaren edizio bakar laburragoa ere bai, baina ez eta gutxiago ere euskal presoen aldeko zenbakia...

Eta galderak/galderak datozkigu: euskaldungo osoan, testu pizgarriak interesatuko zaizkien milaka batzuk ez ote dira? 30 urte eta gero, porrota izan al da ikastolena? Irakasle, funtzionari edo kazetari izan ezean, inork ez du euskaraz irakurtzen, ala? Inguruan bertan ikusten dugu, badirudi euskaraz ikasitako helduek ere, ez dakitela "h" bat beste baten atzetik ondo jartzen, euskaraz datorrena ez dela kultura, zerbait zaila eta aspergarria baino...

Izan ere, oraindik, duela 25 urteko literatur liburuak gomendatzen dituzte hainbat euskaltegi eta eskoletako irakasleek. Oso ondo idatzitako liburuak ere badira, baina zer esanik ez dutenek eginikoak tartean. "Elizgizon/emakume ohi" ugari dagoela dirudi irakasleen artean eta badirudi lehengo eskema berberekin funtzionatzen dutela egun. Liburuzainak sailkapenen teknikoak dira asko eta asko, ezagutu ditugun batzuk edukirik ez dute kontrolatzen, eta "Ostia!" eta "Putz" be-

zalako aldizkariaren superfizialitatearen eta axaleko irudiaren behatzaile zorrotz gisa topatu ditugu, gure aldizkariaren ehortzaileak. (Bide batez esateko, nahiago dute liburu/aldizkari tonak erreziklatzera bota, ezen bizitza konplikatzea).

Espektatiba onegiak egin ote genituen eta damutu beharra al daukagu? Matias Mugicak zerizkion batzuk egiak ote ziren?: Lakua inguruan eginiko zulo amankomunetan lurperatu behar ote ditugu "aurrez subentzionaturiko" argitalpenak? Stockean milaka ale batzuk izan arren, hamarnaka mila batzuk banatu ditugu haseratik, eta ez gara gu hasiko papera erreziklatzen!

Gauzak txarto daude, gutxitxo diren euskal aldizkariarentzat. Medio idatzietan presentzia bat izan arren, propagandak huts egin digu, EITBk ez digu askorik lagundu, aitaopontekoak dituzten askok dute kantxa gehiago ("Zutabe"-k ere bai...!). Publizitateak ere kale egin digu, harpidetak lortzea zaila dago ("lepotik helduta" lortzen dira, eta "errape" berdinari ari gara tiraka argitalpen guztiak), urte guztian salneurria igo ez badugu ere. Liburudenda/oparidendetako arduradun askotaz zer esanik ez: milaka aldizkari dituzte (bonsaie-taz 7, txakurretaz 10, zaldietaz, motorretaz, zernahitaz ezinkontahala...) eta euskarazko aldizkari-liburuen lurperatzaile narratsak (ala bikainak...?) dira.

Edizio bakoitzean gauza arras interesgarriak ateratzen ahalegindu eta zenbait liburu plazaratzea baino gehiago kosta arren, etekin gutxi eta esker on askorik ez da lortzen. Eskerrak dirulaguntza publikoei, bestela jai genukeen...! Ez da askorik izango, bete behar diren papeleo eta burokraziakeri piloak beteta adiskide, baina zorionekoa, zure proiektu apala aurrera ateratzen ahalbideratzen duena. Eta orain arte ez digute inolako zentsurarik ezarri. Horregatik dira posible orain, neurri batean, zenbait aldizkari espezialdu: "Napartheid", "Entzun", "Gaztetxulo", "Putz" eta beste.

Portzertio, "Putz"-ek, eta "Ostia!"-k esparru berdintsua betetzen dute, sailkaezinak dira. Azken batean kofradia berdinekoak garelako ere esan izan digute... Bada, bai, "Putz"-ek "Ostia!" izan zuen aurrekari, eta, beharbada, laister batean batu egin beharko ginatke eta (kontra)kultur aldizkari potenteago bat sortu: hobe zabaldua, mamiz eta itxuraz hobetua, jende gehiagorengana iristeko modukoa eman euskal kontrakulturari.

Aurki ziber-aldizkariak ere ezagutuko omen ditugu... Izan garelako izango dira... Baina, halere, ez genuke entzun nahi "X aldizkaria izan zen", baizik eta "hats eman diezaiozun honetan irauin dezan". Gaur egungo irakurlearentzat egin nahi genuke aldizkaria eta ez biharko artxibo edo Presente Abandonatuaren Museoetarako.

Jon Arano eta Koldo Goitia
("Ostia!"-ko arduradunak)

2001-2002 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

Maila guztiak: Euskalduntzea, Alfabetatzea EGA
Ordutegi zabala
Beka sistema
Ikasketa bereziak eskariei egokituak

16 urtez gorakoentzat

Informazio gehiago Udal Euskaltegian

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulaldia

Irailaren 3tik 21era

**Zuk
ahal
duzu**
MATRIKULA ZABALIK



**BEASAINGO
UDAL EUSKALTEGIA**
Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a
☎ 943 028 100 BEASAIN

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



**Maria Jose
Alustiza**
JOS&BEL
orraztegia

Eguzkiaren ondorioak

hen aipatutako eguzkiaren eraginaz gain itsasoko kresalak, igerilekuetako kloroak eta abarrek ere kalte egiten diote, gainera. Badira jarraitu beharreko oinarritzko zenbait neurri:

- 1.- Garbiketa, ileari ondo doakion txanpuarekin. Eguzkiaren eraginari aurre egiten dioten eta gabezia hori betetzen duten konpentsadoreak badira, garai honetan gehien erabiltzen direnak. Hauek errazago kentzen dituzte kloroaren edo kresalaren hondarrak.
- 2.- Hidratatu eta elikatu. Aklaratu ondoren toailarekin hezetasunik handiena kendu eta maskarilla edo krema bat ipini (mota askotakoak daude, aklaratu beharrekoak edo ez). Krema 10-15 minutu edukiko ondoren aklaratu, ura zenbat eta hotzagoa bada hobe.

Bizitza luzea ilearentzat

Ilearen erorketa pertsona guztien arazoa ez bada gehienena bai, gizonezkoa izan ala emakumezkoa, ile

zuria ala beltza eduki. Egunean zenbat ile erortzen den kontuan eramatea zaila da, baina adituek halaxe egin behar dela aholkatzen dute, kontatu egin behar direla, alegia. Ikerketen arabera egunean 100 ile baino gehiago erortzea gehiegizkoa da. Kopuru normala 10etik 20ra bitartekoa litzateke.

"Zergatik erortzen da ilea udazkenean eta ez beste urtaro batean?" Uste hau oso zabaldua egon arren okerra da hori pentsatzea. Berez ilea urte osoan erortzen da. Gertatzen dena zera da, lehen aipatutako udako eragile kaltegarrien ondorioak udazkenean agertzen direla, hau da, udan hartzen duela ileak tratatu handiena, eta gero hori udazkenean nabaritu egiten da. Beste arrazoi batzuk ere badira: estresa, urduritasuna, haurgintza ondorena, elikadura txarra edo desegokia...

Erorketa gehitu edota luzatzen bada lehenbailehen neurri egokiak hartzea komeni da. Horretarako profesionalen aholkua ezinbestekoa da.

Euskara txukunean

Betiko/betirako

Atzorako, etzirako, betirako... edo atzoko, etziko, betiko... erabili beharko genituzke?

Bada, aurrerantzean, bigarren multzoko forma hauek erabiltzea gomendatuko genituzke. Adibideak:

✓ **Atzoko** (eta ez 'atzorako') agindu nizun lantxoa ez dut egiterik izan, Manuel! Gainera, oso lanpetuta nabilenez, ez dakit **etziko** (eta ez 'etzirako') ere egin ahal izango du-dan!

✓ **Betiko** (eta ez 'betirako') ez gara mundu honetan, Xilberio!

Gogoratu, bestalde, beste balio bat ere izan dezaketela aipaturiko hitzek (aurrekoek aditz bati laguntzen bazioten, hauek izen bati lagunduko diote):

✓ Albiste hori atzoko egunkarian ez bazetorren, etzikoan etorriko da ziur asko.

✓ Betiko kontuak, Joxe!

Maizpide Euskaltegia

Uda badoakigun neurrian udazkenari atea irekitzen hasi beharrean gaude, nagia alde batera utzita gure bizitza normaltasun eta egunerokotasun batera itzuliz. Jendeak bai azala, bai ilea babesteko geroz eta produktu berezi gehiago erabili arren eguzkiaren ondorioak markatuta gelditzen dira ilean, eta denbora behar izaten da bere onera ekarri arte. Kontutan eduki behar dugu ileak ez daukala babes naturalik eguzkiaren izpi ultramoreei aurre egiteko, larruazalak duen bezala.

Edertasuna ezezik, ilearen osasuna ere gehiago baliotatu behar genuke. Le-

MUGAR
Argiztapenak



Jai zoriontsuak igaro ditzazue!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

ORDIZIAN eta BEASAINEN



S.a.

- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak
- Kalitaterik oneneko eraikuntzak

Filipineta, 13 - behea

☎ 943 88 49 50

ORDIZIA



Alaitz Zubizarreta
Akiles fisioterapia

Masajeak hartu ala eman?

Hartu, noski.

Nori emango zenioke masajea?

Momentu honetan ez zait inor bururutzen.

Masajea zertarako da terapia ona?

Masajea, gorputzeko ehunen manipulazioa den alde-
tik, orokorrean efektu batzuk sortzen ditu: giharren
metabolismoa hobetzen du, zirkulazio benosoa la-
gundu, nerbio sistemaren gain eragin lasaigarria du
eta larruazal eta ehun subkutaneoaren elikadura la-
guntzen du.

Zein da gaitzik ohikoena?

Orokorrean, bizkarreko minak dira ohikoenak: zerbi-
kalgia, lunbalgia, lunbozialgia, buruko minak...

Masajea, sendatzeko ala prebentzio bezala?

Komenigarriena, noizik eta behin, denok errebisio
bat egitea izango litzateke, gorputzean akumulatzen
diren tentsio guztiak erlaxatzeko eta lesio mingarria-
goetara eboluzionatu ez dezaten. Baina, beranduegi
konturatzen gara eta lesioa sendatzeko hartzen dugu
masajea.

Fisioterapeuta on batek zein dohain behar ditu?

Nire ustez, behatzaile ona izatea; alde batetik pazien-
teak ematen dizkigun datu guztiak entzuten jakitea
eta bestetik, bere gorputzak ematen digun informazio
guztia jasotzeko gai izatea.

Zaletasun bat:

Bidaiazea.

Liburu bat:

Ez dut asko irakurtzen, baina oso gustu-
koa dudana idazle bat Isabel Allende da.

Musika talde edo abeslari bat:

Bat aukeratzea zaila egiten zait. Adibidez gaur egun-
go kantautoreak oso gustuko ditut, Ismael Serrano,
Manolo Garcia...

Oporretarako leku bat:

Ez naiz bertan izan, baina Kubara joatea gustatuko li-
tzaidake.

Bizitzeko herri bat:

Bertakoa naizenez, Zegama.

Amets bat:

Urte gutxi barru, Euskal Herrian normalizazio egoe-
ra bat lortu ahal izatea.

 **Pottoka**
KAFETEGIA
Legazpi kalea, 3 ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
 - Ogitartekoak
- Jai zoriontsuak denoi!

 **ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**
© 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

**OIANGU
TABERNA**
♦ ♦ ♦
☎ 943 88 30 03
Euskalerría z/g ORDIZIA

 **INPRIMATEGIA
URDANETA**
KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ
Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxe: 943 16 14 07 ORDIZIA

Euskal astea Ordizian

Abuztuaren 31n hasi zen aurtengo Ordiziako Euskal Astea. Irailaren 9an izango du amaiera. Bitarte horretan, ekitaldi ugari izango dira Ordizian. Aipagarriena, asteazkenean, irailaren 5ean, egingo den aparteko azoka izango da. Ordiziako Udalak, Argi-Berri elkarteak, Larrun-Arri elkarteak, Jai-Alai elkarteak, Idiazabal Gaztaren Kofradiak, Goierriko Bertsolari Eskolak eta Ortzadar Argazki Elkarteak antolatu dute Euskal Astea. Jarraian duzue egitaraua, egunez egun.

Irailak 4, asteartea:

17:30ean: Elkarleen arteko XI. Gastronomía lehiaketa bertako produktuekin egindako jakiena, Plaza Nagusian.

17:30ean: Goierriko VII. Odolki onenen arteko lehiaketa eta dastatzea.

Irailak 5, asteazkena:

Azoka berezia. Ikus 11. orria.



OIHANE ENBEITIA



NEREA ELUSTONDO



AMAIA AGIRRE



AINHOA AGIRREAZALDEGI



MAIALEN LUJANBIO



ESTITXU EIZAGIRRE

Irailak 6, osteguna:

19:30ean: Shambu antzerki taldearen Klin, Klan, Kown lana, Plaza Nagusian.

Irailak 7, ostirala:

18:00etan: Mikel Nazabalen 'Sakanako ihauteriak' argazki erakusketa zabalduko da Barrena Kultur etxean.

22:30ean: Izturi taldearen musika saioa, Plaza Nagusian.

Irailak 8, larunbata:

11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara: Haurrentzako jolas parkea, Plaza Nagusian, Ordizian elkarlearen eskutik.

22:30ean: Bertsolari jaialdia Herri Antzokian: Oihane Enbeitia, Nerea Elustondo,

Amaia Agirre, Ainhoa Agirreazaldegí, Maialen Lujanbio, Estitxu Eizagirre eta Alaitz Sarasola.

Irailak 9, igandea:

Oiangurengo Udal lursailetan erromeria.

09:30ean: Ordiziako txistularien kalejira.

12:00etan: Lazkao Txiki X. Bertsopaper lehiaketaren sari-banaketa, Barrena Kultur etxean.

12:00etan: Bikoteen arteko sueltoko dantza txapelketa, haurren mailan, Oiangurenen.

13:30etik 14:30era: Trikitixa saioa Oiangurenen.

16:00etatik 17:00ak arte: Oiangurenen, haurrentzako jolasak eta toka txapelketa.

17:30ean: Oiangurenen, Bikoteen arteko sueltoko dantza txapelketa, helduen mailan.

19:00etatik 21:00etara: Trikitilariak Oiangurenen.

Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa

Igandean, irailaren 9an egingo da Lazkao txiki bertso paper lehiaketako sari banaketa, Barrena jauregian, eguerdiko 12etan. Hiru ataletan banatzen lehiaketa. Helduetan, Alaitz Sarasola ordiziarra izan da irabazlea; gazteetan, Irati Goikoetxea beasaindarra eta haurretan, Billabonako Aritz Garin. Ordiziako kronikan duzue informazio zehatza.

Sari banaketa ekitaldian, 1997 eta 2001 urteetan sarituak izan diren bertsoen liburu bilduma ere aurkeztuko da. Horrekin batera, Argi Berri elkarlearen anagrama berria ere jende aurrean azalduko du Antton Mendizabal eskulturgileak.

Jai zoriontsuak denoi!



ESKAILU TABERNA

Arteaga, 1
ORDIZIA

Jai zoriontsuak denoi!

borja de la cuesta

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak, Oihalak

Plaza Nagusia, 4 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak!

Arantxa
Lentzeria

Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3
☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**



The Clover School of Languages

2001-2002 ikasturtean

ZU ZARA GARRANTZITSUENA

Kurtso hasera, irailak 17

Domingo Unanue Pl., 5
☎ 943 16 20 16
ORDIZIA

Festak ondo pasa!

Matrikula doan

Azoka berezia irailaren 5ean

Euskal Astearen erdi-erdian, asteazkenean, azoka berezia izaten da Ordizian. Urtean zehar hainbat azoka berezi antolatzen da Ordizian, baina entzutetsuena eta arrakastatsuenak, irailekoa da. Produkturik ederrenak Ordizian bilduko dira. Gazta lehiaketak, arreta berezia pizten du. Eguerdiko ordu bata aldera jakingo da irabazlearen izena. Jarraian egingo da enkantea. Egun bete-betea antolatu dute ordiziarrek irailaren 5erako.

Goizeko 9etan, Ordiziako txistulariak, Tolosako dulzaineroak eta Zumarragako trikitilariak hasiko dira eguneko giroa berotzen.

10:00etarako, gazta, ganadu, fruitu, barazki, lepagorri oilasko eta perretxikoen postuak dotore-dotore egongo dira, jendearen gozamenerako. Ohi bezala, gune ezberdinetan banatuko dira postuak.

Gaztaren lekua, Arboleda eta Beti Alai pilotalekua izango dira. Barazki eta fruituen erakusketak, Joxe Migel Ba-



randiaran plazan izango dira, baita perretxikoena ere.

Ganaduen lehiaketak, Garagartza plazan izango da. Lepagorriak ere bertan izango dira.

Azkenik, artisauak, Urdaneta kalean kokatuko dira.

Jakina denez, Ordiziako azokaren oinarri diren base-rritarrak, ohiko lekuan izango dira, Plaza Nagusian. Hauen-tzat ere izango da lehiaketa.

Eguerdiko 12etan hasiko dira sariak banatzen. Joxe Migel Barandiaran plazan, fruitu, barazki eta perretxiko lehiaketetako sariak banatuko dira. 12:30ean, Garagartza plazan, ganadu eta lepagorri oilaskoen lehiaketetako sa-

riak banatuko dira. Ondoren, bertso-saioa izango da, trikiti eta dultzaina doinuek alaiturik.

Eguerdiko 1erako, Ordiziako gazta txapelketaren irabazlearen izena jakitea aurreikusten da. Enkantea egingo da jarraian.

Pilota partidak eta herri kirolak

Goiz parteko ekitaldiak amaituta, arratsaldea ere bete-betea izango da Ordizian.

Arratsaldeko 5,30etan, Beti Alai pilotalekuan, profesionalen arteko eskuz binako-pilota partidak jokatu-ko dira. Bi partida izango dira. Batetik, Arbizu-Begino Azpiroz-Peñagarikanoren aurka



eta bigarren partidak, Unanue-Errasti Olaizola II-Patxi Ruizen aurka.

7,30etan, herri kirol jaialdia hasiko da Plaza Nagusian. Aizkolariak eta harrijasotzaileak izango dira. Hiru saiotan banatu dute jaialdia. Lehenik eta behin, aizkolari saio berezia izango da Jose Etxebeste-ren eskutik. Kanako enborra, zutik, 20 minutuan ebakitzen ahaleginduko da. Bigarren saioan, Tigre de Salinas eta Carlos Atxa harrijasotzaileen jarduna izango da. Azkenik, aizkora desafioa: Jose Mari Olasagasti gipuzkoarra, Floren Nazabal nafarraren aurka.

19.30etik 21:30era, alde zaharrean trikitilariak ibiliko dira giroa alaituz.



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA

ORLEGI
JAIK ONDO
PASA
ETXEZARRETA, 3
ORDIZIA
TABERNA

HERRIKOA TABERNA
Pintxo mundialak
Giro abertzalea
Elkano Kalea
ORDIZIA

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!
Diseinua
Berrikuntzak
Kalitatea
Garantia
HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak
Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Unai Agirrek Goimenentzat egindako ikerketaren arabera

"Ordiziako azokako arkumearen prezioa erreferentzia izaten da Gipuzkoan"

Ordiziako azokaren hasiera 1512an kokatzen da eta harrezkero asteazkenero egin izan da azoka. Barazki eta fruituz gain, abereak saltzeko lekua izan da urte hauetan guztietan. Abereen salmenta, pixkanaka galduz joan da, arkumearena da mantendu den bakarra. Udaletxeko arkupeetan kokaturik, goizeko 6etan hasten da tratua. Arkupe hauen xarma benetakoa da artzain eta harakinentzat. Unai Agirre itsasondorarak, arkumearen salmenta baldintzak hobetzeko ekintzak zehazteko helburuarekin, ikerketa lana egin du, Mendikoi eta Goimen elkarten enkarguz. Erreportaje honetan dituzue zenbait ondorio eta datu.



"Ordiziako azokan, arkumeak saltzeko gune bat egon arren, esan beharra dago, ez direla salmenta baldintzarik aproposenak betetzen, duen garrantzirako. Horregatik beharrezkoa ikusten da, gaur egungo egoera azalduko duen ikerketa bat burutzea eta bertan salmenta aukera ezberdinak aztertzea, gune hau birmoldatu eta gaurkotzeko asmoarekin. Azterketa honen xedea, Ordiziako azokan ematen den arkumearen salmenta baldintzak hobetzeko ekintzak zehaztea izan da.

Aldi berean, azpiegitura, ekipamendu nahiz zerbitzu maila gaurkotzea izan du asmozat, orain bezala ondorengo urteetan, azokak, bere eginkizuna betetzen jarrai dezan, hau da, artzainak arkumea merkaturatzeko erreferentzi puntu bat edukitzea", zehaztu digu Unai Agirre itsasondorarak. 2000. urteko ekainetik abendura egindako ikerketa lana da. Azokaren parte diren alde guztiak ukitu ditu Unai, ikerketa egiteko.

Ordiziako azokara etorritzen diren harakin eta artzain

gehienak, Goierri eta Tolosaldekoak dira. Nafarroatik ere artzain asko etortzen da, %25a. Arkumea merkaturatzeko lau bide nagusi dituzte artzainek: maioristek (tratan-teak, almalenistak...) egiten dutena; salmenta zuzena, harakinek eta partikularrek artzainari zuzenean erosten dietenean; artzain elkarteak; eta azokak. Azken bide hau, ziu-rrera ez bada ere, bostehun urtean iraun duen salmenta eredua da Ordizian. "Askotan gainera, ez da segurua izaten ekarritako arkume guztiak salduko dituztenik. Prezioa ere ez dute jakiten. Arrisku-tsua izaten da". Baina zerk erakartzen dute orduan?

Arkupeen xarma

Unai Agirrek adierazi digunez, artzainek konparaketa bat egiten zuten: "festetan, herri txiki batean, denak pilan, giroa hortxe aurkitzen duzue, denok gustura; beste herri handiago batean, jen-

ARANTXA

b o d e g o i a



☎ 943 88 72 46

Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA



**ITZIARKO
NEKAZARI
KOOPERATIBA**

- Pentsugintza
- Ongarri eta haziak
- Lan tresnak
- Plastikoak
- ARDIENTZAT pentsu gama berezia

Itziarko industrialdea, E-13 ITZIAR

☎ 943 19 93 00/30 Faxa: 943 19 92 70

dea sakabanatuta dabilen leku batean, agian, ez legoke girorik. Hemen berdina gertatzen da. Beste leku batean jarriko balitz, agian giro hori galdu egingo litzateke. Ezagutzen ez duenak ez omen daki zer den”.

Arkume salmentarako, ordea, ez da lekurik egokiena. Erosotasun handiegirik gabea, zaharkitua. Animaliak kargatu eta deskargatzeko zailtasunekin. Lekuz aldatzearen ideia hor dago, baina Unai Agirrek atera duen ondorio nagusia zera da: momentuz behintzat, leku aldatetik ez egitea hobe dela. “Bildutako iritzien arabera, leku aldatetak azoka galtzea ekar lezake. Tolosan, ganadu plaza, lekuz aldatu zuten eta galera izan da eta ia ez omen da baserritarrik joaten ganadua saltzera. Atzerapausoa izan da Tolosaren kasuan eta hemen ere beldur hori dago”, dio Agirrek.

Beraz, Unai Agirrek, orain dagoena ahal den neurrian konpontzea, antolakuntza hobea egitea eta azoka bera bultzatzea proposatzen ditu. Ordiziako arkumea bultzatzeko, izendapen berezi bat sortzea ez legoke gaizki Unairen esanetan.

Prezioa finkatu

Goizeko 6etan, saltzaile-erosle arteko tratua hasten da. “Arkumearen prezioa, egiten den lehenengo tratua markatzen du. Prezio horrek besteengan du eragina. Prezioan faktore askok eragiten dute: urte sasoiak, zenbat erosle



Unai Agirre itsasondoarra.

dauden, zenbat arkume dagoen, kalitatea...”. Baina jendea ez dago oso gustura metodo honekin. “Asko baliatu egiten dira sistema honetaz. Urte sasoi batzutan prezioak oso altu egiten du eta beste batzuetan oso baxu. Abenduan eta Aste Santu inguruan izaten da salmentarik handiena eta prezioa asko igotzen da. Gabonetan ikaragarri igotzen da eta handik hamabost egunera, ikaragarri jaitsi. Prezioa finkatzeko sistema zehaztea garrantzitsua izango litzateke. Prezioa nork finkatuko lukeen, hori da kontua. Guztiei ondo letorkieken prezioa adostu beharko litzateke. Baina hainbeste urtean izan den saltsa, galdu egingo omen litzateke. Artzain eta harakinen arteko adostasuna lortu beharko litzateke. Gutxieneko prezioa jarri urte guztirako, oreka bilatuz”.

Izan ere, Ordiziako azokan arkumeak egiten duen prezioa erreferentzia puntua izaten da Gipuzkoa osoan eta baita Nafarroako zati handi batean ere. “Artzain batek zu-

1999-2000 Kanpainako datuak

Hilabetea	Saldutako arkumeak	Pisua	Prezioa	Salmenta
URRIA	189	11,4	646	1.393.239 Pta
AZAROA	437	11,4	629	3.141.476 Pta
ABENDUA	1.133	11,0	684	8.481.737 Pta
URTARRILA	711	11,0	425	3.328.426 Pta
OTSAILA	770	11,5	421	3.743.495 Pta
MARTXOA	994	11,5	458	5.216.697 Pta
APIRILA	592	11,3	463	3.108.208 Pta
MAIATZA	759	11,9	476	4.281.426 Pta
EKAINA	187	11,8	555	1.219.569 Pta
UZTAILA	50	12,0	661	396.167 Pta
ABUZTUA	43	12,3	666	352.640 Pta
IRAILA	57	12,6	703	503.918 Pta

zenean harakin bati arkumea saldu behar baldin badio, Ordiziako prezioa hartzen dute kontuan, egunkarietan ateratzen dena. Baina askotan, komunikabideetan ateratzen den prezioa ez da zuzena izaten. Askotan, batz bestekoa jartzen da. Agian, prezio handiena eta txikiena jarri behar litzateke”. Urtean, 6.000 arkume saltzen dira Ordizian, 35-40 milioiko salmenta bolumena mugitzen da.

Eredu ezberdinak

Ikerketa hau egiten ari zen bitartean, arkume salmenta eredu ezberdinak ikusi ditu itsasondoarrak. Estatu mailan, lonjatan, tratua zuzenean egiten dute saltzaile eta erosleek, arkumea bertara eraman gabe. Iparraldean, Ezpeletako eredu ikusi du itsasondoarrak. Duela 15 urte birmoldatu zuten, kokaleku moderno eta tresna berriak jarrita. “Astero azokaren bidez saltzen

dute ia guztia. Maioristek erosten dituzte arkumeak. Baskula eta azpiegitura modernoak dituzte. Arkumea lotu gabe eramaten dute. Tratua, prezioa, aurretik finkatuta egoten da askotan. Hemen komertzio txikia asko ari da jaisten eta komertzio handietara ari da bideratzen, beraz, joera hori baldin bada, Iparraldeko eredu balio dezake”.

Harakinentzat garrantzitsua da arkumea azokan bertan erostea, produktua ikusteko aukera izaten baitute. Erosketa bitartekari bidez eginez gero ez lukete produktua ikusiko.

Artzainek eta harakinek biziki eskertu dute Goimenek egin duen ikerketa, erabakiak hartzerako garaian agian kasurik egingo ez bazaie ere, gutxiarik, beraien iritzia emateko aukera eman zaielako.

Kiská
PUB

Santa Maria

ORDIZIA



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA

San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

Benetako esnea aldarrikatzen Goimenen erronka: baserriko esnearen alde

Jada badira urte batzuk esnez betetako marmitarekin saltzen ibiltzen ziren baserritarrak ikusten ez ditugula. Non geratu da marmitetan zetorren baserriko esne hori? Non salmenta zuzenean zenbiltzan baserritarrak?



70 - 80 . hamarkada bitartean galdu zitzaigun maitekiro deritzogun "Marmite-roa"-ren figura. Industrializazioaren areagotzeak, lan merkatuaren aldaketak eta honekin emakumezkoa lan munduan sartzeak, aldaketa nabarmenak sortarazi zituen gizartearen egitura eta ohi-turetan. Denborarekiko bizi-keran aldaketak eman dira, praktikotasun eta erosotasun jarraituak lehenesten direlarik. Ondorioz... oraina, egunero-kotasuna alde batera gerta-tzen doaz. Erosketa ohituretan, elikagaiekin adibidez

maiztasuna murriztu egiten da, astean behinekoa eta bo-lumen handiagokoa izaten delarik, azalera handiko merkatuan eginez. Bertan erosten diren zenbait elikagai, iraupen luzeago bat izateko egokitu dira eraldaketa bitar-tez. Horien artean tetra-brick-ean datorren esnea dugu, UHT-ak (Ultra High Tempe-rature: Temperatura altuaz, epe laburrean esterilizatua), gaingabetuak, erdigangabe-tuak, homogeneizatuak, kon-

tzentratuak, Kaltzio edo bita-minaren batekin "aberas-tuak"...eta beste eduki ba-tzuetan esne hautsa, konden-tsatua... iragarkietan diote-nez, "bikainak" denak ere, horrela ote?

Goimen Elkartetik badira urte batzu, salmenta zuzene-an dirauten baserritarrekin batera lanean gabiltzala eta bertako hornitzaile diren ba-serritarrak beren jarduera mantentzearen garrantzia az-pimarratu nahi luke. Hone-

kin, asmoetariko bat, berez-ko behi esnearen ezaugarriak goraipatzea da, bueltan sortu diren zenbait lelo desmitifi-katuaz eta goierritar biztanle-ria aukera honetaz kontzien-tziatu nahirik. Jadanik, be-launaldi berriek benetako es-nearen ezagutza galdu dute, eraldatutako "esnea" kontsu-mitzen dutelarik. Elkartek, guztion onurarako den pro-dukutuari bere tokia eman nahi lioke, esnearen beneta-ko kalitatea bere horretan baitatza.

Belaunaldiz belaunaldi bertako kulturaren barneratu-rik egon den etxez etxeko salmenta zuzenak, egungo ohitura berriekin edo atzerri-tar kulturaren ezartze hone-kin, jipoi bortitza jaso du eta esnearen kasuan produktuak merkatuan duen potentziali-tatea ikusita, nabarmenagoa izan da jasandako aldaketa. Iragarkietan Light korronea, kolesterola eta abarrek, "Zu-re gorputza zaintzeko", "Na-turala", "Benetako zaporea"



Olatz Aranburu
Alaitz Zubizarreta

SEGURUEKIN LAN EGITEN DUGU

- TRAFIKO SEGURUAK
- ENPRESA, PREVIA, . . .
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
- ERREHABILITAZIO ETA MASAJEA

Tel: 943 88 19 64 / 607 73 82 78
Santa Maria, 16
20240 Ordizia (Gipuzkoa)

KOIOLE KOIOLE

Jai zoriontsuak

Zaldizurreta Kalea
BEASAIN

Garagartza Plaza
ORDIZIA



sugaar
TABERNA

Elkano kalea, 11 ORDIZIA 943161958
www.galeon.com/sugar



eta horrelakoekin, zuzenean behiak eskaintzen digun eta elikaduran oinarritzkoa zai-gun edariari bere benetako justifikazioa ostu diote, artisa- eta baserriko beste produktuekin gertatzen den bezala. Izan ere, baserriko esneak grasa gehiago omen dauka, eta egia esan batatz beste Kolesterol maila litro bat esnetan 120 mg-takoa da, arrautza batek duenaren erdia baino gutxiago!. Mila behiren esne nahasketatik eta prozesu industrialen bitartez emandako eraldaketatik sorturikoak ez du esnearen hasierako konposaketa eta es- truktura kimikorik manten- tzen, aldiz, baserriko esneak zuzenean behi esnea eskain- tzen du. Azaltzen duen gain

maila zein zaporea ez da trin- koa, behiak jaten duenarekin eta naturaren zikloekin lotura zuzena baitauka, eta ondo- rioz gain mailak ere bariazo- ak izaten ditu. Horretaz gain, esne honekin gaingabetze maila norberaren esku gera- tzen da eguneroko gosarie- tan, eta askok (jatetxe, gozo- tegi eta okindegiak batik bat) ez dute zalantzarik bazkari goxo bat, bexamela, arroz es- ne, gaileta, bizkotxo eta abar prestatzerakoan.

Gaur egun baserriko esne- aren salmenta honek bizirik dirau, merkatuan dagoen es- ne motetatik originala den bakarra delarik. Esnea, Biz- kaia eta Gipuzkoako baserri- tarrez osaturiko Baserriko

Esne salmenta zuzenaren eboluzioa

Garai batetik dezente aldatu da, arrazoi desberdinak direla medio.

Garraioan: Erosoago, azkarrago eta baldintza sanitario hobetan egiten da. Garai bateko astoetatik gaur egun egoki- tutako banaketa furgonetara pasatu da.

Kontserbazioan: Esnea jezten denetik hoztu eta kalerako bidean ere, esnea -4 , -6 °C-tan mantentzen da, bere propieta- te eta kalitate bakteriologikoa mantenduz. Hau ziurtatzeko kontrolak egiten dira.

Banaketan: Garai batetik duela oso gutxi arte marmitetan garraiatu eta banatzen zen. Orain plastikozko poltsatan egiten da, osasun baldintzak bitarte. Honekin batera elikagaiak ma- neiatzeko karneta ere badute eta hamabostaldi- beren esne- en muestrak analizatzen dituzte laborategietan.

Ikuluan egindako hobekuntzak:

- Eraikuntzak berritu, bentilazioa hobetu, ximaurrek kanpo- ra atera...
- Saneamendu kanpainaren bidez behi gaixo guztiak kendu eta sanidade neurriak hartu.
- Esnea biltzeko zisterna mekanizatu, zuzenean tankera era- manez.

Berrikuntza guzti hauek direla eta esan genezake kalitate on eta kontrolatu batez saltzen dela gaur egun zuzenean egu- neko baserriko esnea.

Esnea Elkarteko kideak kale- ratzen dute, egunero produk- tore-kontsumitzaileen arteko hurbiltasuna mantenduz. Goierri hiru baserri ditugu, Iztueta Lazkaomendin, Ago- te Etxeberrri Garin auzoan eta Agerre Urretxun.

Goimen Elkartek, base- rriko esneak merezi duen le- kua aldarrikatu nahi luke, merkatuan zein guztion eli- kaduran (haurren elikaduran batez ere) duen garrantziaga- tik.

Goimen

ETXETXO TABERNA

Pintxo bereziak!

Jai
zoriontsuak
pasa
ditzazuela
opa
dizuegu!

☎ 943 88 28 83

Plaza Nagusia

ORDIZIA

MIAMI

kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

Pub
Zorionak !!
Amonane
Ordizia



BIÑASPRE

ESTETIKA ZENTRUA

Aurpegiko tratamendu pertsonalizatuak

Gorputzeko tratamenduak

Depilazio elektrikoa (minik gabe)

LURRINDEGIA
OPARIAK

LASER DEPILAZIOA

K. Nagusia, 8

☎ 943 88 13 37

ORDIZIA

Euskal jaien ondoren

Ordiziako azokak kokaleku berria izango du

Euskal jaien barruan egiten den azoka bereziak behin-behineko agur ukitua izango du, bi urterako, Plaza Nagusitik beste lekuren batera aldatuko baitira baserritarrak. Gainerako postuek ere kokaleku berria izango dute. Plaza Nagusian eta bere inguruko kaleetan egitekoak diren berrikuntza lanak direla eta egingo dira aldaketa hauek.

Ordiziaren nortasun ikur nagusia den asteazkeneko azoka merkatu berrietara egokitzeko asmoarekin, hainbat hobekuntza egingo ditu Ordiziako Udalak. Aldi berean, ondarearen transmisioa bermatu nahi du Udalak, gure arbasoek egin zuten bezala.

Plaza Nagusian eta bere inguruetan hirigintzako hobekuntzak egingo dira. Zolaketa berria egingo da, azoka

barruan zein bertara sartzeko kaleetan, eta ondoren kale horiek oinezkoentzat egokitu dira. Halaber, ur eta argi horniketarako instalazioetan hobekuntzak egiten hasiko dira eta hainbat alderdi estetiko zainduko dira, hala nola, plaza berriz pintatzea, seinaleak, e.a.

Plazako lanak irailean hasiko dira, Euskal Jaiak bukatu ondoren, eta bi urteko iraupena izango du gutxi gorabehera. Denboraldi honetan azoka, ohi bezala, egingo da, nahiz eta saltokiak herriko beste toki batzuetara eramango diren.

Kokaleku berria

Oraindik erabat zehazteko dago Ordiziako azokaren kokaleku berria. Batzuk, Beti Alai pilotalekuan egongo dira ziurrenik eta beste batzuk Joxe Migel Barandiaran plazan. Dena den, hurrengo aleetan zehaztuko dugu saltzaile mota bakoitzaren leku berria zein izango den.



Baserritarrak ezkor

Beti Alai pilotalekuan egongo dira baserritarrak ziurrenik, iraileko aparteko azoka ospatu ondoren. Hainbeste denboran ohiko kokalekutik kanpo azoka izateaz nahikoa kezkatutik daude baserritarrak. Lehenago ere egonak dira pilotalekuan, baina ez hainbeste denbora. Ordiziako azokari batere mesederik ez omen dio egingo. "Asko jaitsita dago, gazterik ez da etortzen, ez erostera eta ez saltzera, eta erabaki honekin ez dut uste azokak batere onurarik izango duenik, bezeroak erakarri beharrean urrundu egingo baitira", esan digute. Orduko esperientzia kontuan hartuta, baserritarrek aitortu digute, "jendeak ez du biderik aurkitzen. Plaza, bidean gelditzen da, baina pilotalekura horretara joan behar da". Pilotalekuko oroimen hobea duenik ere aurkitu dugu: "lekuaren arabera ere bada. Niri sarrera samarrean egokitu zitzaidan eta nahiko ondo egon nintzen". Plaza Nagusia irekiagoa bada ere, pilotalekuan korrienteak sortzen omen dira.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA

Lirain



Pub

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 1975 pta.

Aita Urdaneta **ORDIZIA**

☎ 943 88 72 76

EROSKI

KAFETEGIAK

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA



LUBERRI
Loradenda

- ✓ Andregai lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Ezkontza opariak

Euskal jai zoriontsuak!

J.M. Barandiaran, 3 ☎ 943 16 04 79 **ORDIZIA**



Lierniko

Andra Mari jaiak

Udako oporraldiari amaiera eman ondoren izaten dira, auzo honetako festak. Prestatu diren ekitaldiak honoko hauek dira:

Irailak 8, larunbata:

Andra Mari eguna:

12:00etan: Jaien hasiera etxafleroekin.

12:30ean: Meza.

Jarraian: Josune eta Aitziber Otegi trikitilariak.

16:00etan: XX. Lierniko Txirrindulari Laisterketa, gazteentzat, Lierniko Txirrindulari Elkartearen eskutik.

17:30ean: Ume jolasak.

21:00etan: Auzo afaria Mujika jatetxean.

Afari ondorena alaitzeko, eta goizaldera arte, Josune eta Aitziber Otegi.

Irailak 9, igandea:

Goiz eresia txistulariekin.

10:00etan: XX. Pitxoi Tiraketa, Aitz-Buru elkarteak antolatuta.

12:30ean: Meza Nagusia.

13:15ean: Toka lehiaketa.

Ondoren: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak.

18:30ean: Herri kirol saio berezia: 'Motozerraz egurra lantzen'.

Arratsalde osoan, Andonegi eta Ostolaza trikitilariekin erromeria.

Iñaki Ugalde



San Gregorioko festen azken txanpa

Oporretatik bueltan eta egunerokotasunari bat-batean aurre egin beharra errazteko moduko erremedioa eskaintzen digute urtero San Gregorion zahar eta gazteoi. Ostegun honetan hasi eta datorren astelehenera arte adin

guztientzako ekitaldi sorta antolatu baitute Ataun San Gregorioko Festa Komixioak Ataungo Udalaren babesarekin. Jai egunik gehienak pasatu badira ere, gaur, irailak 3, izango da azken eguna.

Irailak 3 astelehena: San Gregorio eguna:

10:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren salda beroa Pelotazalen.

13:00etan: Toka txapelketa.

Ondoren Bertso poteoa Amets Arzallus eta Oihane Enbeita bertsolariekin

14:30ean: Herri bazkaria bertsolariek alaiturik.

19:00etan: Esku pilota partiduak.

Festen amaiera.

'01-'02 Ikasturte hasiera J.M. Barandiaran eskolan

Datorren irailaren 10ean, astelehena, emango diote ikasturte berriari hasiera Joxemiel Barandiaran eskolako ikasleek.

Ondo pasa festetan eta bide batez ongi etorriak izan zaitezte berri ere gure txoko honetara.

Agurtzane Bikuña



Aurpegiko tratamendu espezifikoak

Gorputzeko tratamendu pertsonalizatuak

Zutikako solariuma

Mikropigmentazioa (perfilatuak, bekainak, begiak, ezpainak)

J. M. Barandiaran pl., 3

☎ 943 88 28 88

ORDIZIA

HERBALIFE

Pisuaaren kontrolean eta larru azalaren zainketan berriena
Kontsulta dohainik eta etxean entrega

Deitu zure banatzaile independenteari

☎ 943 884 560 ☎ 943 881 260 ☎



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrialak
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Zumarralde z/g
Faxa: 943 88 82 67 ORMAIZTEGI

Jai zoriontsuak!

X **kel**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600

ORDIZIA

Igartza auzoko jaiak, irailaren 7tik 9ra

Irailaren 7tik 9ra ospatuko dira Igartza auzoko jaiak. Ohi bezala, txupinazoarekin emango zaie hasiera jaiiei. Jarraian duzue egitaraua:

Irailak 7, ostirala:

19:00etan: Txupinazoa eta buruhandi eta txistularien irteera.

19:30ean: Poteoa trikitilarien.

22:30ean: Antzerkia.

23:30etan: Dantzaldia Drindots taldearekin.

Irailak 8, larunbata:

10:30ean: Igeriketa frogak.

12:00etan: Marrazki lehiaketa.

16:00etan: Arku tiraketa, Igartza Saria.

18:00etan: Pilota partidak.

18:00etan: Meza Loinazko ermitan.

18:30ean: Erromeria Loinazko ermitan.

19:00etan: 'DJ'-a Loinazpe ikastetxean.

21:00etan: Afari herrikoia.

22:00etan: Rock kontzertua, 'Continuo renacer' taldearekin.

23:30ean: Dantzaldia Iraile-rako 6 taldearekin.

Irailak 9, igandea:

09:00etan: Zakur eraskukarien I. lehiaketa, Itolako zelaian.

12:30ean: Buruhandien irteera.

13:00etan: Poteoa trikitilarien.

17:00etan: Bertsolariak.

18:00etan: Dantza saioa.

19:00etan: Herri kirolak.

20:00etan: Kale antzerkia.

21:00etan: Poteoa trikitilarien.

22:30ean: Jaien amaiera.

Nekane Altuna



Beasainmendiko jaia

Asteburuan ospatu da Beasainmendiko urteroko jaia. Meza, bertsolariak, herri kirolak, herri bazkaria... giro onean pasatu zuten eguna bertaratutakoek. Auzotarrei omenaldia ere egiten zaie egun horretan, "zaharrenak" omentzen dituzte bertan. Aurten, Alejandro Letamendia eta Joxepa Bergara senar-emazteak omendu dituzte, Gantzaraingo Intxaurrondo baserrikoak.

Jaiotzez Zestoako Aizarnakoak dira. 80 eta 75 urte dituzte. Duela 50 etorri ziren Zestoatik Beasaina, hiru seme-alaba zaharrenekin. Beasainen beste 7 sortu zituzten. 9 suhi-errain eta 21 biloba dituzte. Joxepa esnea salduz ibiltzen zen etxetik. Astearteroko azokan ere 50 urteetan izan da. Alejandrok go-goan du Beasaina trenan iritsi zen urtea, 1863. Gaur egun San Inazio kalea dagoen lekuan zegoen soroa berak eta Saletoko Ramonek goldatu omen zuten azkeneko aldiz.

Erretiratuen eguna 15ean eta 16an

Egun berezia izango dute herriko erretiratuek irailaren 15ean. Goizean toka eta igel lehiaketak izango dituzte eta arratsaldean, berriz, 3,30etan hasita, lasaixeago, mus, tute, punttu eta seiko lehiaketak izango dituzte. Lehiaketetan parte hartzeko, irailaren 13an eta 14an egin daiteke izen ematea, Erretiratuen etxean. Irailaren 16an, egun handia ospatuko dute. 12:00etan, meza izango dute parrokian eta ondoren, omenaldi bazkaria Antzizar kiroldegian.

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Harategia - Urdaitegia
Festa onak pasat!

Saltsamendi

☎ 943 888 646
Igartza Oleta, 12 BEASAIN

**ZUHAIZPE
TABERNA**

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

Igartza Oleta, 14
BEASAIN

JULIAN MUJICA
Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko
txorixo eta odolkiak

Festa onak pasat!



Igartza Oleta, 10
☎ 943 88 01 96
BEASAIN



AKELARRE
taberna

Festa onak pasat!

Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 23 12
BEASAIN

ANZIZAR
Taberna

Festa onak pasat!

Igartza Oleta, 8

☎ 943 88 43 17

BEASAIN

Andra Mari jaien berri

Abuztuari eta oporrei agur egin ondoren ikasturte berria Andramari jaiek utzitako zenbait berri emanez hasiko dugu, festen oroitzapenak egunerokotasun gordina samurtzen lagunduko duelakotan. Utzi dute gainera zer kontatua hilaren 12an hasi eta 17an amaitu ziren jaiek, betiko legez giro ederrean eta parte hartze bikainarekin igaro direnak.

Gazta eta baserriko ogiaren lehiaketa

Berrikuntza arrakastatsua izan zen etxean egindako ogia jendaurrean aurkeztu eta probatzera emateko ekitaldia. Beste urtetako gazta lehiaketarekin batera burutu zen, ogia eta gazta banaezinak izaki. Epai-modua ere aldatu egin da aurtengoan, epaimahai ofizial baten ordeztu hurreratutako jendeak, jakia dastatu ondoren, erabaki baitzuen botoen bidez norberari onena iruditu zitzaion gazta nahiz ogia. Gaztarik onena Baztarrikako Amelia Jauregiren aurren etsi zuen publikoak, eta ogirik gozoea Bittor Sukiak ekarritakoa.

Maila handiko txirrindu igoera

Andramari eguerdian izan ohi den Ormaiztegitik Gabiriarako txirrindu igoera izan da herrikoia du, baina txirrindularien prestaketa, lasterketaren erritmoa eta batez ere denborak ikusita baita maila bikaina ere. Horren frogaraz Asier Izuzkiza gazte irabazleak egindako 12 minutu eta 16 segundoko igoera, bigarren Iñaki Maiora eta hirugarren Jokin Matxinandiarrena zituela, orpoz orpo.

Hamargarren edizioa zuen aurtengoak eta 43 lagun irten ziren euri zaparradapean.

Sagardo eta txistor dastatzea

Egitarauan bere lekua sendotzen ari den ekintza hau oso jendetsua izan da aurten ere, Gipuzkoako sagardotegieta-rik ekarritako edaria debalde dastatzeko aukerak erakarritak ehunka lagun inguratu baitzen plazara. Horrez gain harakin gabiriarrek egindako txistorra ere banatu zen, zortzi harategiren izenean aurkeztuak, eta eginahalaren esker-adierazgarri modura Pello Bidegainen harategiari eman zitzaion txistor onenaren agiria.

San Roke iluntzean bertan egin zen koadrila arteko afariak ere giro aparta izan zuen ezaugarri, arratsaldea eta gaua lotzeko modu bikaina izateaz gain.

San Roke Txiki eguerdiko giroa

Azkeneko egunean festarako gogoak beste aje eduki arren berezia izaten da 17 eguerdian sortzen den giroa. Bola, toka eta tiragoma tiraketek lagun arteko lehia sana dute helburu, eta horren inguruan izaten den txikiteo herrikoia benetako herri-giroa ezartzen dute. Orain urte gutxi galdu zen kalejira ospetsu hark berriro lekua har lezake jaietako egunik herrikoienengan. Bide batez tiragoman Mariano Aranburu, bolatan Iñaki Etxezarreta eta tokan Iñaki Maiz gailendu zirela aipatu.



Labur-labur

- San Lorentzo egunean Oñatibiko Nikolas Alustizari eman zitzaion auzotarraren oparia, Korta jatetxean egin zen auzo afariaren ostean.
- Iaz bezala Jon Murua eta Josu Andola izan ziren Sanlorentzotako VI. mus txapelketan nagusi, finalean Etxeberritxo eta Intxauspe menderatuta. 22 bikote lehiatu ziren.
- Dantza jaialdi ikusgarria eskaini zuten Lapurdiko Arboreako "Primadera" taldeak eta herriko Goruntzek enparantza jendetsu eta eguzkitsuan.
- Pilotako emaitzak: jubeniletan Agirre eta Oiarbide 18, Irazustabarrena eta Biterik 17; afizionatuetan Lasa eta Zaballak 22, Amariak eta Olaranek 13.
- Herri-kirolen saioaren barnean sokatira erakustaldia egin zen herriko bost talderen artean. Kanporaketak egin ondoren, azkeneko nesken koadrilak irabazi zuen.
- Probintzi mailako bola txapelketa: 1. Xabier Lazkano, 2. Mikel Lazkano.
- Probintzi mailako toka txapelketa: 1. Iñaki Maiz, 2. Inurritegi.
- Erbie elkarteak zozketako zenbaki saritua: 461.

Aimar Maiz

Baserritarrentzat zerbitzuak

Udalak, Goimenen laguntzaz baserritarren zerbitzurako zenbait tresna erosi ditu, besteak beste, hormigoi-makina, aldamio-jokoa, ximaur banatzailea, generadorea, elektrika eta ganadu karroa.

Ehiz postuak

Irailaren 9an, 10:30ean, izango da partzoneriko ehiz postuen subasta udaletxean. Proposamenak irailaren 8rako bidali behar dira 12:00ak aurretik.

Jubilatuaren eguna

Herriko jubilatuek irailaren 16an ospatuko dute euren eguna. Herriko dantzari eta txistulariek arboladian harre-

Udalaren iniziatibaz, Gaztekutxak antolatutako auzo-landegi batek, Aranzadikoen zuzendaritzapean, Unzurrunzaga 6ko etxearen aurrealdeari bere jatorrizko itxura itzuli diote. Lanak abuztu-ko lehen egunetan gauzatu ziren. Datorren urtean, beste hiru etxeren fatxadak zaharberritzeko asmoa dago.



ra egin ondoren, 12:00etan meza izango dute parrokan. Ondoren bazkaria izango dute Zumarragako Etxeberri-jatetxean. Gaixo eta ezinduei pastelak eta txanpaina eramango zaizkie etxera.

XIX. Usakume tiraketa

Txoritegi elkarteak antolatuta, atzo burutu zen tiropitxioia Aizkoeta Erdi baserriko zelaian. Argazkian, Joxe Aldasoro, tiropitxoi-laririk beteranoetakoa. Bere zelaian izan ohi da urtero usakume tiraketa.



Auzo afaria

Irailaren 8an, Arantzazu barriokoek, bertan bizi, lan egin edo jabetzaren bat dutenen arteko afaria izango dute portikopean 21:00ak aldera. Aurrez, auzoan hildakoen aldeko meza emango da parrokan.



Aldaola etxea zaharberriturik

Labur-labur

- Peregrinazioa. Asteburu honetan izan dira segurarrak, zeraingar eta mutiloarrekin batera urteroko erromesaldian Arantzazun.
- Iturriberriko iturria eta ingurua garbitu, txukundu eta bertara zetozen urak bideratu dira.
- Atsedeen Jubilatuen elkartearen obrak. Sanitateak eskatuta, komunak berritu eta pintaketa lanak burutu dira.
- Ibilaldi neurtua. Gipuzkoako jubilatuen elkarteak antolatuta, irailaren 15ean, Orion, Joakina Izagirre, Joakina Alustiza, Bittori Telleria, Kontxi Urkia eta Maria Arruabarrenak osatutako taldea eta Joakin Izagirre, Patxi Imaz, Xabin Aldanondo eta Arturo Gonzalezek osatutakoa irtengo dira.
- Goiko eskolako aldamen batean zegoen sasitza guztia moztu dute udaleko langileek.
- Irailaren 10ean emango diete hasiera laiotz Herri Eskolan 01-02 ikasturteari. Lehenengo astean goizez bakarrik arituko dira.
- ETako kide izatea leporatuta, beste batzuen artean Xabier Makazaga herritarra atxilotu zuen Ertzaintzak Zizurkilen. Gatazkari konponbide demokratikoa aurkitu eta beraren askatasuna eskatzeko zenbait mobilizazio izan dira herrian.
- Administrazio plaza. Udalak atera duen administratibo plazarako 50 bat lagunek eman dute izena. Lanaren %50a bulegoan laguntzea eta beste %50a kulturen eta turismoan bete behar du. Aukeraketa oposizio bidez egingo da IVAPen bitartez. Behin-betiko zerrendak hilabetera kaleratuko dira.
- Futbol denboraldia. Irailaren 20an hasiko dute denboraldia segurarrek. Bazkide eginez, herriko futbolari babesa eman nahi diona futboleko tabernara ager dadila.
- Iazko udan zaharberritu zuten Arrue etxearen aurrealdeari gauerako argiteria jarri berri zaio.

Joseba Telleria

Arantzazura erromesaldia

Ohitura bihurtzen ari da, oporren bueltan, eguneroko martxara itzultzen hasitakoan herritar talde batek Arantzazura antolatzen duen irteera. Aurtengoa, igande honean, irailak 2, izan zen.

Goizeko 9etan abiatu zen autobusa Idiazabaldik. Arantzazura iritsita, elkarteko aitorza eta meza ospatu ziren (eguerdian). Arratsaldeko ordu bietan bazkaria eta herrira bueltatu aurretik bezperak izan zituzten.

Arantzazuren 500. urteurrena gogoan izan zuten larunbateko erromesaldian. Idiazabaldarrak bakarrik ez, Segura, Mutilo eta beste herri batzuetako jendea ere izan zen Arantzazun.

Etxegarate, otsailerako

Etxegarate bikoizteko lanetan ez da etenik izan udan. Uztailaren bukaeran, Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak izan ziren lanak ikusten. Eguraldiak lagunduz gero, bikoizketa otsailerako bukatutako izango dela jakinarazi zuten.

Orain arte egindako lanetan 2 milioi metro kubiko lur mugitu dituzte. Lanek 8 mila milioiko aurrekontua dute, eta errepide berria, egunero 16 mila ibilgailuk erabiltzea espero dute.

Xabier Urteaga



Idiazabaldik Garazira

Idiazabaldar gehienek abuztuko egun hauek, batera edo bestera joateko aprobetxatu dituzte. Herriko gazteek, Gaztetxeak antolatuta, Garaziko gazteei eta bertako Gaztetxeari egin diote bisita. Abuztuaren 17a eta 19 bitartean 12 idiazabaldar Garaziko gazteekin izan dira.

Irulegi Irratiaren bidez egin zuten zita eta jai giroan pasatu zuten asteburua. Abuztuaren 19an, Egurrezko ezteiak ospatu zituzten. Ezkontza bat irudikatuz, herrian barrena ibilaldiak, bazkaria, gazteen arazoei buruzko hitzaldia, auto karabana eta erromeria egin zituzten.

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lotura estutu, eta bultzatzea izan da bisita honen helburua. Idiazabaldarrek, sanblasetarako gonbitea egin diete Garaziko gazteei.

Urkia auzoko jaiak

Agorreko Gurutze Deunaren jaiak ospatuko dituzte Urkia auzoan, irailaren 14tik 16ra bitartean. Urkiako jaien batzordeak prest dute egitaraua.

Irailak 14, ostirala:

Gurutze deunaren eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00tan: Hamaiketakoa, Olarte anaiak trikitilariak alaiturik.

19:00etan: Suziri jaurtiketa festak hasteko.

19:00etan: Erromeria Olarte anaiak trikitilariak.

21:00etan: Afaria elkartean.

Irailak 15, larunbata:

21:00etan: Lagunarteko afaria elkartean.

23:00etan: XIX. Urkiko mus txapelketa herrikoia.

23:00etan: Erromeria Epelde eta Larrañaga trikitilariak, goizalderarte.

Irailak 16, igandea:

10:00etan: Meza Nagusia.

11:00etan: Hamaiketakoa, Jauregi eta Berastegi trikitilariak alaiturik.



14:30ean: Bazkaria.

19:00etan: Aizkora apustua: Olasagasti, Arrospide, Azurmendi eta Ugarteburu.

19:00etan: Erromeria, Jauregi eta Berastegi trikitilariak alaiturik. Honekin amaituko dira iraileko Gurutze Deunaren jaiak.

Jai batzordeak jakitera eman duenez, jai guztietan

antxuma bat zozketatuko da. Zenbaki irabazlea igandeko iluntzeko 9etan bertan aterako da.

Bestetik, ostiraleko eta larunbateko afarira edo igandeko bazkarira joan nahi dutenek, irailaren 13a baino, 943889367 telefonora deitzea eskertuko lukete antolatzaileek.

Bertsopaper onenak sarituak

Alaitz Sarasola, Irati Goikoe-txea eta Aritz Garin bertsolariek jasoko dituzte X. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako irabazleei dagozkien sariak. Guztira 25 izan ziren antolatzaileen eskutara iritsitako lanak eta epaimahaikoaren iritziz honako bertsopaperak izan ziren lehen sariak jasotzea merezi zutenak:

Helduetan, idatzi beharreko gaia librea izanik, lehen saria Ordiziako Alaitz Sarasolak jasoko du 'Enbor bere-tik' lanagatik, bigarren saria Ekaitz Goikoe-txea beasaindarrak 'Oi lur, oi lur maitea' lanagatik eta hirugarrena Nikolas Zendoia zarauztarrak 'Sara' lanagatik.

Gaszteetan, hemen ere gaia librea izanik, lehen saria Beasaingo Irati Goikoe-txeak jasoko du 'Elurdi iturritik' lanagatik, bigarren saria Joseba Apaolaza aramarrak 'Emigranteak' lanagatik eta hirugarrena, berriaz, Aitor Urbietak

zarauztarrak 'Nire patinetek' lanagatik.

Azkenik, gaztetxoan mailan, gaia euskara izanik, lehen saria Billabonako Aritz Garinek jasoko du, bigarren saria Hodei Iruretagoiena zarauztarrak eta hirugarrena Billabonako Beñat Iguaran eta Ordiziako Igor Zeberio elkarbanatu beharko dute.

Sari banaketa irailaren 9an izango da eguerdiko 12etan Barrena Kultur Etxean eta sarituek, sariak jaso ahala, euren bertso idatziak kantatuko dituzte. Sariak banatzen horarituko dira Alejandra Iturrioz alkate anderea, Manuel Zeberio Argi Berri Elkarteko lehendakaria eta Jokin Barandiaran Joxemiel Iztueta 'Lazkao Txiki' zenaren iloba. Aipatu, ohiko dirusariak gain, aurtengo Goierriko Bertso Eskolaren anagrama berria daraman oroigarria ere jasoko dutela maila desberdinetan lehen saria jaso duten bertso-



Iazko bertsopaper lehiaketako sarituak.

Herri antzokia eraberritua

Uztaila eta abuztuaren itxita egon ondoren zabaldu ditu berriro ateak Herri Antzokiak. Eraberritze lanak zirela eta izan da itxita aipatu bi hilabeteotan.

Azken fasea hastear

Herri guneko zoruaren berrikuntza lanen azken fasea besterik ez da falta. Santa Maria kaleko lanak amaituta Kale Nagusia eta Enparantza Nagusia geratzen dira soilik. Hau guztia egiteko, ordea, bi urte beharko dira. Honek ohiko asteazkeneko perian aldaketak suposatuko ditu eta euskal festak amaitu bezain laster Enparantza Nagusiko postuek pilotalekuan eta Joxe Miel Barandiaran Plazan izango dute euren kokaleku berria.

Lenin tontorra lortua

Uztaila amaieran joan ziren Pedro Garcia, Juanma Sarasola eta Joseja Sarasola ordiziarrek Tadjikistan eta Kirgizistan artean dagoen Pamir mendikatera. Bertako bigarren mendirik garaia- na igotzea zuten helburu, 7.134 metro dituen Lenin, eta abuztu erdialdera euren nahiak bete zituzten. Sarasola anaiei lehen zazpi milakoa izan da eta Pedoren bosgarrena. Euren esanetan arazo handirik gabe lortu zuten tontorra eta ziur aurrerantzean honelako besteren bat lortzen saiatuko direla.

Ereserki berria

San Bartolome auzoko baselizari ohore eginez Bernardo Alberro musikagileak ereserkia idatzi berri du. San Bartolome egunean bertan egin zuen ereserkiaren aurkezpena baselizan egin zen mezan.

lariak. Anagrama honen nondik norakoak azaltzeko hor izango da Antton Mendizabal eskultorea, lanaren egilea.

Era berean, 1997-2001 urte bitarteko Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako bertso sarituen bilduma jasotzen duen liburua ere aurkeztuko da aipatu ekitaldian. Hau guztia egin ostean, sari banaketara hurreratzen diren guztientzat lunch-a izango da Bustuntza auzoan dagoen Argi Berri Elkartean.

Euskal festak gainean

Joaneko ostiralean hasi ziren jada urtero bezala iraileko lehen astean ospatzen diren euskal festak. Jubilatuen txanda izan zen aurrena eta jarraian adin guztietako jendearentzat ere izango da non eta zer aukeratua (ikus 10. orrialdea). Zalantzarik gabe asteazkeneko peri berezia izango da festetako egun na-

gusia eta bertan denetik izango da. Taloak, barazkiak, ganadua, postu ugari herri guneko kaleetan barreiatu- rik, gazta enkantea, zozketak, ardoa, trikitilari eta dultzaineroak, pilota partidak... Esan bezala, denak baserritarrez jantzi eta primeran pasatzeko aukera.

Larunbatean bertsolarien txanda izango da. Emakumez osatutako seikotea izango da protagonista eta aurkezle gisa halako beste bat. Oihane Enbeita, Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Ainhoa Agirreazaldegi, Estitxu Eizagirre eta Amaia Agirre bertsotan arituko diren bitartean aurkezlea Alaitz Sarasola izango da. Herri Antzokia eraberritu- an izango da saioa iluntzeko 10:30etatik aurrera. Irailaren 9an izango dute amaiera aurtengo euskal jaiek.

Aitor Calvillo



Eneagrama metodoa gure burua ezagutzeko

Gu nor garen edo are gehiago, nor izatera iritsi gaitezkeen jakiteko balio omen du eneagrama metodoak. Baina zer da eneagrama hori? Bederatzi lerrotan gure izaera hobe ezagutzen lagunduko digun gogoeta sistema bat da eneagrama. Sistema honek hiru ardatz ditu oinarri moduan, pentsamendua, sentimendua eta nahimen edo borondatea, eta hauen inguruan lan eginda gure pertsonalitatea sakonago ezagutzera iritsi gaitezke. Horrela, gure izaera hobe ezagututa, autoestima orekatu, gure nortasun eta izaeraren hutsuneak identifikatu edo norberarekin eta ingurukoekin gusturago egotea ere lortuko dugu.

Gizarteko alor ezberdinetan geroz eta ezagunagoa den metodo hau sendagile, familia hezitzaile edo irakasleek erabiltzen omen dute besteak beste. Baina metodoa guztiontzat omen da komenigarria, eta horregatik, Lazkao-ko Udalak, herriko jubilatuen elkartearekin batera, eneagramaren inguruko ikastaroa antolatu du.

Aita Karlos (Iñaki) Arrizabalaga izango da kurtsoa ematearen arduraduna. 1956.urtean Lazkao-ko beneditarren komentuan apaiztu zenean, Hego Ameriketara joan zen Aita Arrizabalaga. Han misiolari moduan 14 urte igaro zituen, eta ondoren Bogotara bidali zuten bertako El Rosal Monasterioko priore izan zedin. Han hasi zen Aita Arrizabalaga eneagramaren metodoa lantzen eta geroztik hainbat tokitan eman du ezagupen pertsonalerako laguntzen duen ikastaro hau.

Oraingoan Lazkaora itzuliko da bertakoei eneagrama erakustera. Ikastaroa irailaren 3tik 7ra bitartean, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara izango da Lazkao-ko jubilatuen Arteaga egoitzan. Norberaren gaitasun, kalitate eta izaera hobeto ezagutu nahi duten guztiek aukera izango dute ikastaro honetara joan eta eneagrama sistema hau zer den ikasteko.

Oihana Sarasola

Xabier Unanue atxilotu ondoren, aske

Xabier Unanue lazkaotarra atxilotu zuen Ertzaintzak abuztuaren 22an, ETArekin harremana izan zezakelakoan. Atxiloteta goizaldean gertatu zen Zaldibian. Berarekin batera beste bi zaldibitar ere atxilotu zituen Ertzaintzak. Larunbatean, abuztuak 25, utzi zuten aske Xabier Unanue ETArekin harremanik ez zuela frogatu zenean. Albiste honen inguruko berri gehiago duzue Zaldibiako kronikan.

Barre terapia Kultur etxean

Barre eginda bizitza kalitatea hobetzen dela entzun dugu askotan, baina barre egitea ez da beti erraza izaten. Umorea eta barrearen fenomenoak ezagutu eta eguneroko bizimoduan barre egiteko ariketak lantzeko barre terapia ikastaroa antolatu du Lazkao-ko udalak.

Baina ez da barre terapiaren ingurukoa antolatu duten ikastaro bakarra. Usaimen terapia edo ipuinak kontatu eta sormena nola landu behar den ikasteko aukera ere izango dugu hurrengo kurtso honetan. Egur taila, altzarien zaharberritzea, etxe barruko apainketa edo haurren marrazketaren inguruan ere ikastaroak antolatu ditu udalak. Aukera zabala dago zalantzarik gabe. Ikastaro guztiak urritik ekainera bitartean luzatuko dira eta izena eman edo informazio gehiago nahi dutenek, udaletxera jo beharko dute.



Kiroldedia ohiko ordutegietara itzuliko da

Uztaila eta abuztuan Joxe Migel Barandiaran kiroldedia igande eta jai egunetan itxita egon da. Irailaren lehen egunetik, ordea, ohiko ordutegietara itzuliko da. Kurtso berriari begira, kirol ikastaroak ere antolatu dituzte aurtengorako. Horrela aerobika, igeriketa ikastaroak edo masajea eta gihartze zerbitzuak, besteak beste, irailaren 10ean hasiko dira martxan.

Kiroldegiko taberna ere oporreratik egun batzutan itxita egon da, baina dagoeneko taberna nahiz jatetxe zerbitzua martxan daude abuztuaren 27a geroztik.



RENAULT
AGENTZIA

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

AMEBI



Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Sagardotegiko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Sagardoa txotxetiki
- * Kana zerbitzua
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 943 16 25 23 LAZKAO



Udari errepasoa

Udak ihes egiten digun garai honetan eta gehienen oporrak ere udarekin batera badoazenean, udari errepaso txiki bat egiteko sasoia heldu da.

Udako barnetegiek eta Kultur elkarteak elkarlanean antolatutako ekitaldi ezberdinak, bertso afaria, diapositiba emanaldia, magia emanaldia, kantu eta ipuin kontaketa eta azken eguneko dantzaldia, arrakastatsuak izan ziren, herriarren partehartzea bikaina izan zen.

Dordognarrak eta mexikarrak Zerainen

Uztailaren 22tik 27ra Dordognako gazte talde bat, Hariztierdi aterpetxean izan zen, bi herrien arteko gazteen harremanak indartzeko asmoz.

Aste berean, Mexikoko San Luis Potosiko Hunac-cell dantza taldea izan zen aterpetxean, talde hau Espainian zehar beraien dantza ekitaldiak ematera etorri zen. Zerainen

igaro zuten aste honetan beraien dantza emanaldi bat eskaini zuten, hilaren 25ean Santiago egunez, hain zuzen ere, bertara hurbildu ziren ikusleak ekitaldi koloretsu, alai eta berezi bat ikusi ahal izan zuten.

Festak

Festak ere pasatu berriak dira, aurtengoan giro ederrean joan dira. Antolatutako ekintza, ekitaldi, ikuskizun eta dantzaldiak jendearen festa gosea asetzeko modukoak izan dira, eta partaidetza ugaria izan da.

Bereziki azpimarratu beharreko ekitaldia, San Roke eguerdian, herriko agintarien Soka Dantza izan da. Ohitura hau aspaldidanik galdua zen, eta aurtun berreskuratu da.

Bolatakoko kontuak

Andramari bola txapelketa partaidetza handiz jokatu zen, Andramari eta San Roke



egunetan, ondorengo emaitzekin: Andramari egunean 1. Imanol Agirre, eta 2. Xabi Lazkano 36 birlatara parekatuak. San Roke egunean 1. Inazio Ugarteburu 35 birlakin eta 2. Imanol Agirre 34 birlakin.

Liztormendi bolari taldeak bi kide berri ditu, Iñaki Beraategi eta Karmelo Arzelus. Kide berri hauekin Zeraingo taldea, lehenaz gain, indartu egiten da. Badirudi oraindik bizirik dagoela kirol hau eta indarberritzen ari dela.

Mari Flor Mendizabal

Kultur astea irailaren 15etik 23ra

Kultur astea hilaren 15ean, larunbatean, hasi eta 23an, igandean, bukatuko da, ondorengo ekitaldi hauekin:

Irailak 15, larunbata:

16:00etan, marrazki lehiaketa; 18:00etan, merienda, buhundiak eta sari banaketa; 20:00etan, antzerkia; 21:00etan, afaria eta ondoren trikitixa.

Irailak 16, igandea: jubilatuen eguna:

12:00etan, meza Nagusia, Agirre eta Etxeberría bertsolariak eta Maider eta Xabi trikitilariekin. 14:00etan, bazkaria.

Irailak 17, astelehena:

Hitzaldia: Iñaki Aizpururen eskutik, Aizkorri Parke Naturalari buruz. Kultur etxean, 20:30ean.

Irailak 18, asteartea:

Hitzaldia: Goierriko leku-izenen inguruan, Mikel Zalbideren eskutik. Kultur etxean, 20:30ean.

Irailak 20, osteguna:

Gurutze Irizarren eskutik, Saharar herrien egoerari buruzko hitzaldia, Kultur etxean, 20:30ean.

Irailak 21, ostirala:

Diapositiba emanaldia: Aitzol Telleria eta Felix Goibururen, Karakorum-en bihotzean, Kultur etxean, 20:30ean.

Irailak 23, igandea:

Azoka ekologikoa.

lues rothers
BEASAIN

Kubako bidaetan berezitasuna
Koba Tours
Madril-Habana-Madril
80.000 pta.
35 egun
Elosegi, 17 LAZKAO
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

GERTU
aholkularitza
TXEkin programarako
homologatutako erakundea
e txekin
Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92

Enetz Iraetaren heriotza

Oporraldiaren amaierarekin batera herriko berriak zuen-ganatzeko asmoz berriz ere idazteari ekin diogu. Oporraldi atsegingarri eta lasaia izango zenutelakoan gaude, oraindik oporrak amaitu ez dituzuenok berriz azken egunak ongi igaro ditzazuela opa dizuegu.

Ikasle gehienak ikasturte berriaren atarian aurkitzen diren honetan, guk geure egutegiari jarraituz opor osteko garaia hasiera eman diogu. Gaurko honetatik aurrera ere herriko berriak ahalik eta zuzenen zuenganatzeko ahalegin berezia egiten saiatuko gara. Ikasturte berrian atseginenez eta gustura emango ditugun berri pozgarriak nagusitu daitezela desio dugu. Lerro hauek idazterako unean zirra-bizia sortu digun berria bezalakorik inoiz ez genuke eman nahi. Hain zuzen oporraldi amaieran herritarron

bihotzak saminez gainezka jarri digun berria izan da. Zorritzarreko istripu baten ondorioz Enetz Iraeta Simon gaztearen ustekabeko heriotzaren berri tamalgarria. Itsasondan hil zen auto istripuan, abuztuaren 26an. 19 urte zituen Enetzek. Une zail hauetan Enetz gaztearen sendiarekin bat egin nahi dugu bihotz-bihotzez gure samin agurra bidaliz eta beraiekin atseka-bean bat eginez.

Lierniko erromeria giro onean

Aurtengo Lierniko erromeria giro ederrean ospatu zen. Goizean burutu ziren haur jokoek eta bazkal osteko Triki-mailu deituriko animazioak giro aparta jarri zuten. Arzak eta bere taldeak bakailua prestatu zuten bertaratuek dastatu zutelarik. Bazkal ostean toka eta sokatira txapelketak jokatu ziren. Aipatu bi

Tejeriko auzokideen urteko bilkura

Azken urte hauetan bezala Tejeri edo zentraleko auzokideek aurtengorako ere beraien bilkura eguna antolatu dute. Aipatu auzoan jaio eta bizi izan diren kideek bazkari batean elkartzeko ohiturarekin jarraitzen dute, aurtengoan irailaren 22 aukeratu dute ospakizunerako eguna. Ospakizunak laugarren urtemuga betetzen duen honetan bazkaria Gabiriako Korta jate-txean ospatuko dute.

Aipatu ekitaldietan parte hartu nahi duzuenok zuen izenak irailaren 15era bitartean eman ditzakezue. Horretarako 4.000 pezetako diru kopurua Ormaiztegi Euskadiko Kutxako 3035.0006.82.006.1.00604.9 kontu korrontean sartu behar da. Diru sarrera egiterakoan norberaren izen-abizenak adieraztea eskatzen da.

Jubilatuen irteera kostalderra

Herriko jubilatuen elkarteak irailaren 13rako kostalderra bi-daia antolatu du. Irteera goizeko 9etan egingo dute. Bazkaria Oiarzungo Gurutze-Berri jatetxean izango da.

Aipatu ibilaldira joan nahi duzuenok zuen izenak irailaren 5 eta 6an elkartearen bertan eman behar dituzue. Izen emateak egiteko ordutegia: 12:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

txapelketetan partaidetza handia izan, tokan garaile Lague izan zen eta Mujika jate-txeak oparituriko saria jaso zuen. Sokatiran berriz hiru kategoria izan ziren: lehenengoan haurtxoak aritu ziren lehian eta mutilek irabazi zuten; gaztetxoan mailan Dea-

brutxoak deituriko nesken taldeak irabazi zuen; helduen mailan berriz, Laburu taldeak. Egunean zehar herriko trikitilariak alaituriko giroaz ongi pasatzeko aukera izan zen.

Aitziber Murua

HORTZ KLINIKA



Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

**Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia**

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.
☎ 943 88 92 87 **BEASAIN**

ZUHAIZKI
S. A. L.

ZURGINDEGIA



- ✕ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- ✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

VOLVO

 **TOYOTA**

 **ŠKODA**
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Oskarbi Jauregi Soto del Real espetxean

Abuztuaren 22ko goizaldean Gipuzkoan eginiko polizi operazioan Ertzaintzak zortzi lagun atxilotu zituen, horien artean, Zaldibian Oskarbi Jauregi, Alaitz Intsausti eta Xabier Unanue. Hori dela eta, bizi zireneko etxebizitza miatu zuen Ertzaintzak, eta Zaldibian manifestazioak egin ziren atxilotetak salatzeke. Egun honetan, Zaldibiako udalak ez ohiko osoko bilkura egin zuen, eta Batasunako sei zinegotzik aho batez onartu zuten Amnistiaren Aldeko batzordeek sartutako mozioa. Atxilotuen senitartekoei beren "elkartasun zintzoena" eskaintzeaz gain, eta "gauaren inpunitatean eta lekukorik gabe buruturiko atxilo-

ta hauek salatzearekin batera, atxilotuak jasotzen ariko diren tratuari buruzko kezka" azaldu zuen udalbatzak.

Ostegun goizaldean berriz, Oskarbi Jauregi atxilotua ekarri zuten ertzainek Ostatu buruko etxeen behealdean dagoen garaje bat miaztera, eta segidan, Galarragarren etxera joan ziren beste lagun baten bila, eta sakeleko bi telefono eraman zituzten berriekin. Arratsaldean berriro itzuli ziren ertzainak garajea miaztera.

Xabier eta Alaitz, aske

Larunbat goizean iritsi ziren atxilotuei buruzko lehen berriak, izan ere, Xabier Unanue eta Alaitz Intsausti aske



utzi zituen Ertzaintzak, epailearen aurretik pasa gabe. Arratsaldeko 2,30etan heldu ziren bi gazteak Zaldibiara, senide eta lagunez lagunduta, eta zain zituzten ehun herritar inguruk harrera beroa egin zieten. Hiru dantzarik ohorezko agurra eskaini zioten bikoteari, eta lore-sorta bana jaso zuten bertaratuen txalo zapadarraren artean.

18:30ak aldera, berriz, Ertzaintza itzuli zen Zaldibiara, kultur etxea miaztera, eta Oskarbi Jauregi ekarri zuten miaketara. Ordu erdi inguru egin zuten ertzainek kultur etxearen barruan, eta ordenagailu bat eta inprimagailu bat eraman zituzten bertatik. Bitarte horretan, tentsio uneak bizi izan ziren atarian. Hala, iluntzeko 8etan eskualdeko manifestazioa egin zen Zaldibian 'Konponbide demokratikoa Euskal Herriarentzat.

Atxilotuak askatu' lelopean, eta mila lagun inguruk parte hartu zuten bertan. Amaiera ekitaldian, EAJ eta EA alderdien jarrera salatu zuten, "lege antiterrotista aplikatzea onartzen dutelako".

Igande goizaldean autobus bat eta zenbait auto irten ziren Zaldibiatik Madrilera bidean. Atxilotuta jarraitzen zuten bost lagunak, tartean Oskarbi Jauregi, epailearen aurretik pasa behar ziren. Hamalau ordu luze egin zituzten Entzutegi Nazionalaren aurrean, eta epaileak bosten kartzelatzea eskatu bazuen ere, senideek "indartsu" ikusi zituzten. Oskarbi Jauregik ez zuen deklaratu nahi izan Garzon epailearen aurrean, eta Soto del Real (Madril) espetxean sartzeko agindua eman zuen.

Iñaki Gurrutxaga - Saroi Jauregi

Orientazio ikastaroa eta Pirinioetara irteera

Gailurrerantz Kirol elkarteko mendi sailak bi ekintza berri antolatu ditu irailerako. Batetik, Oiduegin (Oiduin) egingo den orientazio ikastaroa irailaren 8 eta 9an. Ikastaro honen helburua, orientazioko ezagupenak, mapak irakurtzen eta iparrorratza erabiltzen ikastea da. Izena emateko epea irailaren 2an amaitzen da. Langileak: 8500 pezta. Ikasle eta langabetuak: 5000 pezta. Dirua Kutxako zenbaki honetan sartu behar da: 2101 0075 00 000002580579

Bestetik, eta irailaren 15 eta 16 astebururako, Pirinioetara irteera antolatu du. Irailaren 9an amaitzen da izena emateko epea. Langileak 6000 pezta ordaindu beharko dute eta ikasle/langabetuek 4500 pezta, eta aurrez aipatutako kontu zenbakian sartu. Zaldibia-Formigal-Canfranc-Pepito grillo aterpetxea-Hecho-Ibon de Estanes-Castillo de Acher-Zaldibia da irteera honen ibilbidea.

Santa Fetako bilera, irailaren 6an

Irailaren 6an, osteguna, arratsaldeko 7,30etan izango da aurtengo Santa Fetako egitaraua zehazteko lehen bilera. Dakizueenez, aurtengo bost egunetako festak ditugu: urriak 4-5-6-7-13. Egunak eta musika taldeak zehaztuta daude, esate baterako, baina orain egitaraua festa herrikoi eta parte hartzailez betetzea falta da. Anima zaitezte, gutxi falta baita Santa Fetarako!



Bultziak abuztu

Azkenean etorri ziren barnetegiko bultziak herrira. Abuztuko hiru aste pasa dituzte bertan, eta guztira 25 ikasle eta 3 irakasle izan dira bertan. Ikasleen artean, gehiengoak, nafarrak eta bizkaitarrak izan dira.

San Bartolome jaiak giro ederrean burutu dira

San Bartolome Jaiak giro ederrean burutu dira lehen saio honetan. Eguraldi beroa eta pisua jasan badugu ere, aurreikusitako ekitaldietara herritar eta kanpotar ugari bildu da. Aipatzekoak dira, lehen eguneko mozerro jantziak eta bertan izan zen jai-giroa. Kiroldegiko sarreran 170 mozerrodunek egin zuten bazkaria, ondoren futbito txapelketa ikusiz.

Herritarren arteko txirrin-du frogak, pilota partidak, Herri-Kirolak, Elkarleen arteko Paella Lehiaketa, San Bartolome Txirrindu Froga, suzuri-jaurtiketan eta sardina-jatean bildu zen jende gehien.

Trebeska Dantza Taldeak ere, dantza ikusgarriak eskaini zituen San Bartolome eguerdian, beroaren eraginez edo, jende gutxi gerturatu ba-

zen ere plazara. Arratsaldean ordea, herritarrok dantza ikusgarriez gozatzeko aukera izan genuen.

Kultur Etxean zegoen eskulanen tailerreko erakusketa eta Aitxuri Herri Eskolan zegoen ikasleen eskulanen erakusketan ere jende ugari ibili zen.



Ikasturte berria

San Bartolome Jaiak pasa eta gero, denok zeregin jakinetara bueltatzen gara. Datorren irailaren 10ean hasiko da Aitxuri Herri Eskolan 2001-2002 ikasturtea; lehen hiru asteak goizez izango dira eta iraileko azken astean goiz eta arratsaldez hasiko dira haur eta irakasleak. Tobera Musika Eskolan ere kurtsoa hastear da. Ehiztariak udazkeneko hego-haizearen zain jarri zaizkigu eta herriko hainbat eta hainbat elkarte desberdin lanean hasiko dira Zegamari herri biziaren itxura emanaz.

Otzaurteko benta

Obra ikusgarriak burutu ondoren, Otzaurteko bentak bere ateak ireki ditu. Bertan, Oiarbide anaiek taberna eta jatetxe zerbitzua eskaintzen dute mendizale eta inguru horietako zaleok eskertuko dugularik benetan berriro ere paraje horietan hain zerbitzu ona izatea.

Eduarne Albizu

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

XVI. mendeko Igartubeiti baserria museo bihurturik

Ezkioko Igartubeiti baserria museo bihurtu da. 1993an Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi zuen Igartubeiti eta zortzi urteko berriztatze lanen ondoren, Gipuzkoan XVI. mendean baserriak nolakoak ziren ikusteko aukera eskaintzen digu. XVI. mendearen amaierara edo XVII. enaren hasierara bidaiatu egin dezakegu Igartubeitin. Abuztuaren 10ean egin zen inaugurazioa, Diputazioak deituta.

Museo historikoa da, "hemen ikusten diren gauzak ez baitira gure aitona-amonei ezagututakoak, askoz ere lehenagokoak baizik, ahozko memoriaren bidez ere ezin iritsi gaitezkeen garai batekoak", dio Alberto Santana historialariak.

Igartubeiti baserria XVI. mendearen erdialdean eraiki

zuten eta XVII. ean izan zen berritua. Berritze lanek, ordea, ez omen zuen oinarritzko egituraren aldaketa nabarmenik eragin. Igartubeitik zurezko egitura ia-ia osorik gorde du.

Azterketa arkitektonikoak ere egin dituzte adituek urte hauetan eta antzinako hainbat eraikuntza metodo ezagutzeko aukera ematen dute. Esaterako, XVI. mendeko dola-rea, habe luzekoa, da Igartubeitiren ardatz nagusia. Etxe guztia ardatz horren inguruan eraikia eta osatua dago. Adituek diotenez, arkitekto onak ziren oso ordukoak.

Urria bitartean, asteartetik igandera, egunero egongo da irekita. Goizetan, 10etatik 2etara eta arratsaldetan, 4etatik 7etara. Ostiraletan dohai-nik izango da sarrera.



Turismo gune berria du beraz Goierri Igartubeitirekin. Zerainek, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak eta Legazpiko Miraondalak osa-

tzen duten ibilbidean sartu dute Igartubeiti. Bisita gidatuak ere izango dira aurrera begira.

Kizkitzako Amaren eguna

Itsasoko Bartolome deunaren jaiak pasatu berri badira ere, oraindik ere bada jai giroa herrian, Kizkitzako Amaren eguna jai giroan ospatzeko eguna baitago. Irailaren 8rako prestatutako egitaraua duzue jarraian:

Eguerdiko 12etan meza nagusia izango da ermitan. Egun guztian zehar, Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin erromeria izango da.

Itsason jarraituko du festak iluntzetik aurrera; goizaldersa arte, trikitilariak izango baitira.

Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI ☎ 943 88 94 82
BEASAIN
INPRIMATEGIA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua eta karta.

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73



"Ni ere Kilometroak lagun" (eta II)



Martin Alustiza, pilotaria: "Euskararen alde oraindik ere egin beharreko festa bat dela iruditzen zait. Euskara oraindik beharrean dago eta guztiok bultzatu behar dugu"




Xabier Imaz, pilotaria: "Benetan festa garrantzitsua iruditzen zait, festa eta aldarrikapen garrantzitsua. Ez dugu ahaztu behar, hala ere, urte gutxian egin behar dela lan euskararen alde"



Aitor Garmendia, txirrindularia: "Lastima da, ezin izango dut joan, egun horietan kanpoan egoten naizelako, baina egin beharreko gauza iruditzen zait. Gure lurreko gauzak defendatzeko, gurea dena defendatzeko"



Iker Sukia, pisu jaurtitzailea: "Euskaldun guztiak biltzeko bilgune bat da Kilometroak, oso garrantzitsua euskararentzat"



Josune Bereziartu, eskalatzailea: "Beti akordatzen naiz Kilometroekin. Ikasten nuen garaian Beasainen nola egin ziren ere akordatzen naiz. Ikastolen eta euskararen alde egiten den edozein ekitaldi bultzatu egin behar da"



Joxe Ramon Agirre, mendizalea: "Euskarari oraindik eman behar zaion derrigorrezko bultzadan oso garrantzitsua da Kilometroak bezalako festa"

Lagun taldeen laguntza

Hilabete eskas falta da Kilometroak 2001 egunerako. Azken txanpan sartuak daude antolatzaileak eta egunean bertako lanak zehazten ari dira. Jendea behar da horretarako, jakina. 2.500 lagunengana laguntza behar da Kilometroak jaiaren 25. urteurrena txukuna izan dadin.

Goierriko lagun talde edo koadrilei egiten die dei oraingoan antolatzaileek. Oraindik data zehazteko gabe badago ere, bileraren bat egingo da irailean. Dena den, dagoeneko izena emateko aukera badago. Kilometroak-en bulegora deitu, 943 164177, eta lagun taldean zenbat lagun zareten zehaztu eta harremanetarako telefono bat besterik ez da utzi behar. Aparkalekuak zuzentzeko, txoznetan lan egiteko, garbiketarako, aurreko egunetan egin beharreko muntaia lanetarako... nahi adina lan dago. Euskarak eta Ikastolak eskertuko dute zuen laguntza.



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.
E-posta: beasain@ikastola.net

Tel/fax 943 88 96 17

Yoga hitzaldi sorta Beasainen

Sanatana Dharma elkarteak yogari buruzko hitzaldi sorta antolatu du. Beasaingo udaletxeko batzar aretoan izango dira, arratsaldeko 7,30etan hasita.

● **Irailak 17, astelehena:** Tomas Diaz yoga irakasleak 'Barne aurkikuntza: Ongizatea eta osasun integrala' gaiari buruzko hitzaldia emango du.

● **Irailak 18, asteartea:** Amagoia Muruamendiaraz mediakaren eskutik, 'Autoestima nola garatu. Barne harmonia eta oreka' gaiari buruzko hitzaldia izango da.

● **Irailak 19, asteazkena:** 'Osasuna da lehenengo: osasun fisiko eta mentalaren puntuak. Boterea zure barruan dago' gaiari buruz hitz egingo dute Josune Gonzalez Reiki-ko terapeuta eta Sonia Sanz musika irakasleak.

● **Irailak 20, osteguna:** Bharat Martin yoga irakasleak, 'Pentsamendu positiboaren boterea. Zoriontasunaren pedagogia' izango du ardatz.

musika

BEASAIN:

Irailak 7, Drindots, Loinazpe ikastetxean, 23:30ean.

Irailak 8, Continuo renacer taldearen kontzertua, Loinazpe ikastetxean, 22:00etan.

Irailak 8, Irailerako 6, Loinazpe ikastetxean, 23:30ean.

ITSASONDO:

Irailak 15, Epelde eta Larranaga trikitilariekin erronomia, Urkian, 23:00etatik aurrera.

ORDIZIA:

Irailak 7, Izturi taldearen musika saioa, Plaza Nagusian, 22:30ean.

antzerkia

ORDIZIA:


Irailak 6, Shambu antzerki taldearen 'klin, klan, klown' obra, 19:30ean, Plaza Nagusian.

dantza

ORDIZIA:

Irailak 9, sueltoko dantza txapelketak, Oianguren: 12:00etan haurren mailakoa eta 17:30ean, helduena.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 53 Fax: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✕ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✕ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 **ORDIZIA**

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

MUGICA 19



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Zorion Insaustiren laguntzaz
Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka
Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
☎ 943 88 13 37
ORDIZIA

bertsoak

ATAUN:

Irailak 3, Bertso poteoa eta bazkaria, Amets Arzallus eta Oihane Enbeitarekin. San Gregorion, 13:00etatik aurrera.

ORDIZIA:

Irailak 8, Oihane Enbeita, Nerea Elustondo, Amaia Agirre, Ainhoa Agirreazaldegi, Maialen Lujanbio eta Estitxu Eizagirre. Gai-jar-tzailea: Alaitz Sarasola. Herri Antzokian, 22:30ean.

erakusketak

ORDIZIA:

Irailaren 7tik aurrera, Mikel Nazabalen 'Sakanako ihauteriak' argazki erakusketa, Barrena kultur etxean.

mendi irteera

Beasaingo mendizaleak

Irailak 16, Besaidera.

Zaldibiako mendizaleak

Irailak 15-16, Pirinioetara: Formigal-Canfranc-Pepito grillo aterpetxea-Hecho-Ibon de Estanes-Castillo de Acher.

Boluntario munduaren inguruko jardunaldiak Beasainen

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak antolatutarik, boluntario munduaren inguruko jardunaldiak izango dira Beasainen, irailan zehar. Gai ezberdinak jorratuko dituzte:

● **Irailak 12, asteazkena:** 'Zer da boluntaritza?' Udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean.

● **Irailak 13, osteguna:** Mahaingurua boluntario talde ezberdinen parteidatzarekin. Udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean.

● **Irailak 23, igandea:** 10:00etatik 14:00etara, boluntarioen baterakuntza. Boluntario talde ezberdinek euren lana erakutsiko dute hainbat standen bidez.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Irailak 8-9: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Irailak 15-16: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

iBAi ONDO



AROZTEGIA
instalazio berriak

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➔ Etxebizitza salgai Errioxan. Bi familientzako egokia. 943160428. Gaez deitu.

errentan

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da irailetik aurrera. Nekazal gunea. 948539381.

➔ Pisua alokatzen da Ordizian. 943880084.

konpartituak

➔ Bilbon, Santutxun, pisua osatzeko lagun bat edo bi behar dira. 943524820 - 943806378.

➔ Pertsona bat behar da Bilbon, Deustu auzoan, pisua osatzeko. 605704689 - 943888304.

➔ Bi lagun behar dira Bilbon pisua osatzeko. 943180128 - 943180422.

➔ Pertsona bat behar dugu Leioan pisua osatzeko. Banakako gela eta Unibertsitateetatik gertu. 943028590

➔ Ikasleekin etxea konpartitzen dugu Madrilen. 914595390.

Negozioak

traspasoa

➔ Jubilazioa dela eta, martxan dagoen lokal komertziala eta negozioa traspasatzen dut Ordizian, 330 m2, oso zentrikoa eta erabat ekipatua, bezero ugariarekin, errenta txikia, aparkaleku galanta ondoan eta beste apartekoak. Edozein tailer montatzeko ezin hobea: autoak, motorrak, nekazal-makinaria... Salneurri guztiz interesgarria. 943161835.

Ibilgailuak

salgai

➔ Volkswagen Polo Confort Plus diesela salgai. SS-BB. 45.000 km. 1.150.000 pezeta. 943883504. Begoña. Denda orduetan deitu.

➔ Opel Corsa GSI salgai. Engantxearekin. SS-AF. 943161254.

➔ Ford Galaxi TDI monobolumena salgai. 7 plazakoa. SS-AZ. Umeentzako siloi integratua dauka. 2.300.000 pezeta. 639179821.

➔ 99ko kroseko Kawasaki motorra salgai. 627411764.

➔ Hyundai coupe AX 2000 salgai. 16V. SS-X matrikuladuna. Extrekina. 619460248. Iban.

➔ Citroen ZX diesela salgai. SS-AU. CD-a eta engantxea. 659511578. Enrike.

➔ Peugeot 205 1,8 diesela salgai. SS-AZ, CD irratiarekin. 675.000 pezeta. Negoziazarriak. 699585779 Xabi.

➔ Honda Civic salgai. 1,4 I 16 v. 94 urtekoa. 699630809.

Bestelakoak

opari

➔ Hiru logela oparitu-ko nituzke. Ohe bakarrekoak. Zaharrak baina egoera onean. 943450697. Donostia.

salgai

➔ Mapex markako bateria salgai. 943880186.

➔ Trikitixa, soinu txikia, salgai. 943889410.

➔ Ontzi-garbigailua, Fagor markakoa, salgai. Erabili gabea. 678934438. Izar.

➔ Gurdi-denda salgai. Sukaldea, 2 logela eta hozkailuarekin. Egoera onean. 150.000 pezeta. 943885923.

➔ Olivetti idaz makina elektrikoa salgai. 20.000 pezeta. 943882278.

➔ Negutegi edo inberraderoak alokatzen dira. 943883157.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN

ETXEBIZITZA BERRIAK SEGURAN



HERRI ERDIAN

- ✗ 2 logela, egongela, sukaldea, jangela, bainugela 17.500.000 pezetatik hasita.
- ✗ Duplexa: 4 logela, egongela, sukaldea-jangela, 2 bainugela 23.000.000 pezetatik hasita.
- ✗ Garaje itxiak aparte 2.100.000 pezetatik hasita.

ERAGIN S.L. inmobiliaria Tel.: 943 474699 - 609 40 30 81
 Marina Kalea, 10 - 1.F DONOSTIA

➔ Ohea egiten den tresillo bat, bi butaka eta egongelako mahaia saltzen dira. 670422051.

➔ Pertsona ezinduak mugitzeko garabia edo grua salgai. 943886834.

Animaliak

salgai

➔ Seter arrazako txakurkumeak salgai. Pedigree onarekin. 627411764.

➔ Schnauzer txakurra opari. Handia. Beltza. Kartila eta guzti. 943881411.

➔ Bi urteko aharia (adarrrik gabea) salgai. 943885102.

Lana

eskaerak

➔ Pertsona euskalduna behar da Zaldibian, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943882923.

➔ Neska bat behar da Beasainen, bi haur ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko, 7,30etatik 2,30etara. Iraila hasieran hasteko. 699665544. 14:00etatik 20:00etara deitu.

➔ Neska bat behar da arratsaldeetan haurrak zaintzeko. 943889802.

➔ Idiazabalen emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943187267. Gauetz deitu.

➔ Klinikak laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikulumak helbide honetara bidali: Eulen. Esteban Lasa kalea, 2. Beasain.

➔ Hartz Klinika batek behar du: klinika laguntzailea eta/edo errezeptionista. Esperimentiadunak eta euskaldunak. 943889287 (10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara).

➔ Neska bat behar da etxeko lanak egiteko, orduka. 650728717.

➔ Fruta landaketa ekologikoa zaintzeko, astean egun batez lan egiteko pertsona bat behar da. 943161945.

➔ Neska edo emakume bat behar da Beasainen, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943881282 - 943887652.

➔ Emakume euskaldun bat behar da Beasainen. 943882127.

➔ Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Astean 3 egunetan. 943887187 - 609353024.

➔ Emakume edo neska euskalduna behar da Ordizian ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 20:00etatik aurrera deitu. 943161273.

➔ Zerbitzaria behar da Gaintzan. 943886243.

➔ Ordiziako Gabinete Psikopedagogikoko batek Psikologia Kliniko eta Edukatiboan espezializatutako pertsona bat behar du. 943162129 - 943161373.

➔ Klinikak laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikulumak helbide honetara bidali: Eulen. Esteban Lasa kalea, 2. Beasain.

➔ Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko 24-30 urte arteko neska behar da. 943888182. 15:00etatik 16:30era deitu.

➔ Mezulariak behar ditu Goierriko mezulari-zerbitzu batek. 627496091.

Ordiziako Udalaren deia

Ordiziako Udalak 14 agente eta 4 talde-buruen aurretiko aukeraketari ekin behar dio, 2001eko Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsua eta Biztanleen udal errolda berritzeko lanei ekiteko.

Lan honetarako interesatuek Udalarekin Erregistro Nagusira eraman behar dituzte eska-bideak. Irailaren 6a da azken eguna. Eskabidearekin batera honako agiriak eraman behar dira: NANren kopia, eskola ziurtagiriaren kopia eta EGA edo baliokidearen kopia.

IKASTE AKADEMIA

Goierriko Akademia integrala

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN

ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- ✕ Unibertsitate-maila
- ✕ Batxilergoa
- ✕ DBH
- ✕ Selektibitatea

ESKOLA LAGUNTZA

- ✕ Maila eta arlo guztietan
- ✕ Banakako laguntza etxean

TAILERRAK

- ✕ Ortografia
- ✕ Irakurmena - idazmena
- ✕ Kalkulua, logika
- ✕ Testu komentaketa

Presta zaitez gurekin Goierriko Ingeniaritza Eskolan sartzeko!
Etorri informaz ioa jasotzera!

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

2001-2002 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK	MATRIKULA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldeaz eta gauzez	Irailaren goizez eta arratsaldeaz	Euskalduntze Alfabetatze EGA

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.



EUSKALTEGIA

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 943 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40

LAZKAO: Ellosegi, 16 - 2. ☎ 943 88 91 74



Ordiziako Santa Ana ikastetxekoak 1969-70 ikasturtean

Ordiziako Santa Ana ikastetxeko ikasleak dira argazkikoak. 1969-70 ikasturtean ateratakoa da, 11 urte zituztela.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Fermin Bola, Juan Manuel Lertxundi, Velasco, Legorburu, Jose M. Esnaola, Romero, Vicente Valdes, Gullon, Munduate, Alonso, Jose Luis Ibañez, Juanjo Lizarbe.

2. lerroa: Angel Osinaga 'El Pipas', Guillermo Lazkano, Gonzalo, Pello Otegi, Rafa Letamendi, Txema Irastorza, Gregorio Saldaña, Teofilo Gomez, Bixente Dorronsoro, Jesus M. Iturrioz, Simon Barandiaran, Juanjo Eskisabel, Irastorza.

3. lerroa: Martinez, Vicente Murua, Eduardo Dubreuil, Pedro Mujika, Angel Gomez, Jose M. Mendizabal, Juanjo Villar, Bueno, Ortega, Juan Andres Cuadrado, Ricardo Mendizabal, Martin, Patxi Garmendia, Sabin Zeberio.

4. lerroa: Sarasola, Joakin Elkoro?, Felipe Sarasola, Boada, Cavero, Alberto Riaño, Zurutuza, Jose Luis Sukia eta San Sebastian.

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Festa onak pasa!

Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 **ORDIZIA**

batasuna

Ordiziar eta bisitari guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA

Fandango

- ✳ Musika tresnak
- ✳ Megafoni alkilerra
- ✳ Baxu eta gitarra klaseak

☎ 943 16 10 73

Domingo Unanue, 2 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak denoi!



GOIATGI OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 943 880737



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak guztioi!

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxe: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHO ISOLATZAILEAK

ZERBITZUA - KALITATEA - BERMEA

BRINKOLA



PVC eta aluminiozko leihoetan nahi adina aukera, baita egur tonuak imitatzen dituztenak ere
AENOR ziurtagiria, MAPFRE aseguraa eta PERFET 10 bermea ditugu: lan onaren bereizle argiak

Tailerra: Legazpi-Zumarraga errepidea z/g
☎ 943 73 37 00

Denda: Artiz kalea (Orbegozoko aldapan)
☎ 943 72 64 53 ZUMARRAGA